

OÑATIKO EMAKUME SORTZAILEEN ARTEKO HARIAK EHUNDUZ ERAKUSKETA

Herriko 20 emakumeren
sormen lanak egongo
dira ikusgai Santa Ana
antzokian ekainaren
5etik 22ra



Oñatiko Emakume Sortzaileen ERAKUSKETA

Santa Ana antzokiko sarreran egongo da ikusgai ekainaren 5etik 22ra

> Diziplina ezberdinetako 20 emakumeren lanak egongo dira ikusgai.

> Beraien sortze prozesuaren inguruan Itziar Bastarririk osatu duen ikus-entzunezkoa –Aran Saizek konposatutako 'Sareak' doinuarekin– ere egongo da ikusgai.

Herriko emakume sortzaileen lana sustatzea eta ikusgarritasuna ematea da udaleko Kultura sailaren lan ildoetako bat, eta horretara bideratzen du diru-atal bat urtero, 2022az geroztik.

Aurreneko urte hartan, Irazan antzerki taldeko Irene Balzategi eta Amaia Castañedari eman zitzaizkien diru-laguntza, Alaine Agirreren *Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama* nobelan oinarritutako antzezlanaren sortzeko. Sortze prozesua ireki, elikatu eta herritarrekin partekatzeko beste zenbait ekintza ere antolatzen ziren, eta 2023ko udaberrian estreinatu zuten sortze prozesuaren emaitza Santa Ana antzokian.

Emakumeak ardatz izango dituzten sortze proiektuak sustatzeko ildo horretan, iaz 'Emakume sortzaileak' izeneko hamabostaldia antolatu zuen udaleko Kultura sailak, askotariko arte adierazpenak —musika, literatura, antzerkia, bertsolaritza...— eta askotariko artisten —batzuk profesionalak, beste batzuk amateurrak—, parte hartzearekin, eta jardunaldiak boro-bilduz, Oñatiko dozena bat emakume sortzaileen lanekin osatutako erakusketa eder bat ere egin zen.



Edurne Iriondo, lan-taldeko partaidea, Iñaki Olalde, Kultura batzordeburua, eta Edurne Sorazule, teknikaria, Oñatiko Emakume Sortzaileak egitasmoaren aurkezpenean

ESPERIENTZIAK PARTEKATU

laz hasitako bidean sakondu asmoz, aurtien ere herriko emakume sortzaileen erakusketa bat egitea erabaki du udaleko Kultura sailak, baina urrats bat haratago joateko helburuarekin, bi norabidetan: batetik, emakume sortzaileen abanikoa edo sorta irekitzea, artera mugatu barik; eta, bestetik, sortzaileen arteko elkarriketarako gune edo espazio bat sortzea, beraien esperientziak, kezak, egarriak, beharrak... partekatzeko eta, ahal den neurrian, sortzaileen arteko lankidetzak eta ezagutza-trukea sustatzeko.

Asmo horiekin, martxoan herriko emakume sortzaile

guztiei zuzendutako deialdi irekia egin zuen Kultura sailak, eta, ondoren, egitasmoan parte hartzeko interesa erakutsi zuten guztiei (25 bat emakume) galdetegi bat luzatu zitzaizkien, hainbat punturen inguruan galdetuz: orain arteko ibilbideaz, etorkizunera begirako erronkez, sortze prozesuan izaten dituzten behar, oztopo edo premiez, prozesu honekiko dauzkaten espektatibez...

Galdetegietako informazioa aztertu ondoren, emakume sortzaileen arteko lehenengo solasaldi-tailerra egin zen, maiatzaren 7an, partaidetza gaietan aditua den *Farapi* aholkularitzak dinamizatuta. Emakume sortzaileen arteko

elkarriketarako espazio bat sortzea zen helburua, beraien esperientziez, erreferentiez eta sortze prozesuan indartu beharreko puntuez hausnarketa egiteko, besteak beste.

SORTZAILEEN ARTEKO SAREA SORTU

Ekainaren 11n (kultur etxean, 18:00-20:00) bigarren lan saioa egingo dute egitasmoan parte hartzen ari diren emakume sortzaileek. Beraien arteko elkarlanerako sare bat sortzeko aukera aztertuko dute, besteak beste. "Uste dugu interesgarria izan daitekeela zubiak eraikitzea eta elkarlanerako sare moduko bat sortzea", azaldu digu Edurne Iriondok, antolaketa taldean parte hartzen ari den sortzaileak. "Garrantzitsuak dira era honetako sareak, informazioa jasotzeko eta lankidetzak eta sinergiak sustatzeko. Baina, aurretik hausnartu egin behar dugu zer nolako sare nahi dugun, nola funtzionatuko duen eta zertarako".

Baina zerbait aterako dela uste du Iriondok, jendea animatuta dagoelako, erronka berriei ekiteko gogoz. "Adibidez, Aran Saiz musikariak lehen saioan parte hartu ondoren, bere burua eskaini zuen prozesu honen inguruan Itziar



Emakume sortzaileek elkarrekin egindako lan saio bateko irudia

Bastarrika grabatzen ari den ikus-entzunezko musika sortzeko eta interpretatzeko. Horren emaitza da 'Sareak' piano pieza ederra".

Izan ere, Emakume Sortzaileak egitasmo honen baitan, emakumeen sortze prozesuen inguruko gogoeta eta esperientziak jasotzea helburu duen ikus-entzunezkoa grabatzen ari da Itziar Bastarrika, eta erakusketak dirauen bitartean ikusgai egongo da Santa Ana aretoan bertan, butaken eta komunen arteko espazioan.

ERAKUSKETA

Ekainaren 5etik 22ra egongo da ikusgai Oñatiko emakume sortzaileen erakusketa Santa Ana antzokiko sarreran (as-telehenetik igandera. Hogei sortzailearen lanak (ikus ondoko taula) egongo dira ikusgai bertan, eta lanekin batera, sortze prozesuan erabiltzen dituzten elementu edo lan-erremintak ere egongo dira bertan, sortze prozesua hobeto ulertzeko eta, aldi berean, inspiratzaile ere izan daitezkeelako. Bisita gidatuak ere egingo dira erakusketak dirauen bitartean (ikus ordu-egia ondoko taulan).

Iñaki Olalde, udaleko kultura batzordeko burua, oso pozik azaldu da Emakume

► ERAKUSKETA

ORDUTEGIA						
EKAINA						
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

18:00-20:00
 11:00-13:00 / 18:00-20:00

19:00-20:30
 Itxita

► BISITA GIDATUAK

Bisita gidatuak egingo dira honako egun eta orduetan:

- **Euskaraz** ekainaren 6, 12, 13, 15, 16, 21 eta 22an (18:00-20:00)
- **Gaztelerez**, ekainaren 9 eta 17an (18:00-20:00)

Sortzaileen bigarren edizio honek hartu duen norabidearekin. "Iaz baino izen emate gehiago izan dira, diziplina ezberdinetakoak, gainera, eta, batez ere, gogotsu daudela transmititu digute. Aurtengo helburu nagusia sortzaileek beraien espazio propioa sortu eta lanketa bat egitea da tailer eta formazioen bidez. Beharrezkoa da izan ditzaketen zalantzak argitzeko guneak sortzea, elkar ezagutu eta saretzea". Sor-

tzzaileen arteko gogoeta kon-tuan izango dutela adierazi du Olalde, ondorioak atera, beharrak definitu eta bide berriak irekitzeko. "Sormen handia daukagu herrian, eta horren adibide, erakusketa koloretsua eta askotarikoa izango da".

Udaleko kultura saila eta Edurne Iriondorekin batera, Berdintasun saileko teknikari Jone Arriolabengoak eta Ane Galdosek (*Baneu* diseinua) ere parte hartu dute antolakuntzan.

ERAKUSKETAN PARTE HARTUKO DUTEN SORTZAILEAK

- **Maidar Arregi Markuleta** Bertsolaria
- **Hortensia Alcalá García** Margolaria eta idazlea
- **Lide Osinaga Ormazabal** Osagarrien artisau jostkina
- **Puri Tejerina Escoriza** Margolaria
- **Mirari Sagarzazu Sacristán** Ilustratzailea, artisaua eta bertsolaria
- **Idoia Etxeberria Elorza** Idazlea
- **Maria del Carmen Castro Collarini** Jostkina
- **Itziar Arkauz Onraita** Antzerkia eta musika
- **Aran Saiz Markuleta** Konposatzailea eta pianujolea
- **Miren Zubeldia Plazaola** Yoga eta elkartsuna
- **Teresa Díaz** Margolaria
- **Irene Balzategi Arkauz** Antzerkia eta performance
- **Nagore Goñi Lorenzo** Argazkilaria
- **Miren Maiztegi Moyua** Sukaldaria
- **Ana Maiztegi Moyua** Sukaldaria
- **Edurne Ugarte Nieto** Osagarri/pitxien artisaua
- **Lukene Igartua Egaña** Idazlea
- **Izar Mendiola Igartua** Ilustratzailea
- **Milana Etheria** Eskulanak
- **Marian Perea Ortuño** Crocheta

'Baskonia globalizazioan'

» Nabarralde Fundazioak antolatutako jardunaldi-kongresua egingo da Oñatin, ekainaren 13-14an. » Joseba Sarrionandia, Xabier Irujo, Helene Larralde, Isabel Elizalde, Iñigo Urrutia, Eguzki Urteaga, Roser Espelt, Eneko Bidegain... Soziologo, ekonimilari, historialari eta arlo askotako adituek parte hartuko dute.



Globalizazioaren garai betean Euskal Herriaren kokapena definitzeko beharrezkoak dituen oinarrien inguruan hausnartzea. Horixe izanen da ekainaren 13an eta 14an Oñatin egingen den jardunaldiaren helburua. Nabarralde Fundazioak Oñatiko Udalaren laguntzarekin antolatuta, jardunaldiak arlo askotariko adituak bilduko ditu. "Hausnarketa kritikoa behar dugu gure burua aurkezteko", diote antolatzaileek.

Hartara, soziologiako, historiako, hizkuntzalaritzako, sindikalgintzako, literaturako eta sorkuntzako aditu andana bilduko dira Oñatin egingen den jardunaldian. Besteak beste, Joseba Sarrionandia, Isabel Elizalde, Roser Espelt, Eneko Bidegain eta Xabier Irujo arituko dira hizlari, beste askoren artean. Ostiralean Santiago Albaren hitzaldiarekin emanen zaio irekiera jardunaldiari, arratsaldeko 19:00etan; eta larunbateko saioa egun osokoa izanen da, 9:00etatik 18:00etara. Angel Rekaldek, Nabarraldeko koordinatzaileak, eman digu jardunaldien zergatien eta helburuen berri.

Zein kezka edo gogoetak piztu du jardunaldi honen ideia?

Gure Herriak biziraun egin du, gorriak pasatu eta gero ere: gerrak, konkistak, inperioak... Historia gordina izan arren, gure arbasoek erakutsitako batasun, antolakuntza eta lanerako gaitasunek, bizirautea posible egin digute. Garaipen honen frogarik bistakoena, orain hemen bagarela. Gure zenbait bereizgarri egin dute posible talde izaerari eta ekintzarako gaitasunari eustea.

Momentu honetan, gure kezka da globalizazioa ez ote den ari Herriak edo nazioak eraikitzea posible egin zituzten erreferenteak suntsitzen. Kultura globalak bazter guztietan inposatzen du homogeneotasuna. Baina berdin gertatzen da ekonomiarekin, teknologiarekin, inbertsio eta finantza fluxuekin... Egoera berri baten aurrean dago gure nazioa, eta galderak sortzen zaizkigu: gu geu izaten jarraituko ote dugu? Ba ote daukagu lekurik ezleku honetan?

Zein da orduan, jardunaldiaren asmo edo helburua?


Salvador Cardúsek zera dio: nortasuna beste batzuekin batera edo beste batzuei kontrajarriz eraikitzen dela, batez ere azken hauek taldearen izaera eta bizikera kuestionatzen dituztenean. Eta beti, komunitatea etorkizuneruntz proiektatuz eraikitzen dela nortasuna.

Esan bezala, gure gizarteak ezaugarri batzuk garatu ditu, habitus bat, zeintzuek ahalbidetu duten orain arte biziraun zezan. Zentzu honetan, jardunaldiaren helburua da egungo egoeraren diagnostiko bat egin, eta gure etorkizuneko aukeren prospekzioa egitea.

Espezialista talde on bat bildu duzue, kulturako eta herrialdeko akademiako figurak, Oñatiko edizio honetarako.

Zein irizpiderekin planteatu duzue adituen bilaketa hori?

Garai berriak dira. Giza bizitza gero eta gehiago hirietan kontzentratzen da, eta gure lurraldean hiriek kontzentratzen dute herrialdearen dinamismo soziala. Bilbo, Iruñerria, Baiona-Donostia... Bitxia bada ere, hori gutxi aztertu da; Euskal Herriko herri arketipikoa landatar gisa definitu da, bere tradizioei atxikia, lurraldean sakabanatua; hori ez da ho-



Argk.: Berria

ANGEL REKALDE GOIKOETXEA

Nabarralde fundazioko koordinatzailea

» Egoera berri baten aurrean dago gure nazioa, eta galderak sortzen zaizkigu: gu geuzaten jarraituko ote dugu? Ba ote daukagu lekuri mundu globalizatu honetan?

» Orain arte historia, hizkuntza, mapa eta lurraldea erabili ditugu euskal nazioa definitzeko, baina uste dugu herria proiektio klabean pentsatzeko beharra dagoela.

rrera inondik inora, eta herrialdea beste ikuspegi batzuetatik pentsatu behar da. Horretarako, hautemateko gaitasun zorrotza erakutsi duten pertsonak deitu ditugu. Eta gizartearen, kulturaren, ekonomiaren, demografiaren, lurraldearen, klima-aldaketaren... gako berriak azaltzen ahalegintzeko eskatu diegu.

Globalizazio garaiotan, zaila al da euskal nazioa definitzea? Edo, beste ertz batetik, munduko testuinguruak zaildu egiten du Estaturik gabeko nazio gisa dugun egoera?

Euskal nazioa definitzea baino zailagoa, orain arte historia, hizkuntza, mapa eta lurraldea tresna gisa erabilia egin dugun hori, uste dugu herria proiektio klabean pentsatzeko beharra dagoela; etorkizuneko ikuspegi bat; eta horrek eskatzen du daukagun gaitasunaren diagnostiko bat; hau da, dauzkagun erabakitze baliabideena, eskumenena, subiranota-

sunarena. Ikusten dugu estatuak ekaitzaldi global horren aurrean kokatzen direla erabaki estrategikoekin (aliantzak, protekzionismoa, immigrazioaren aurkako neurriak...). Guk, Estaturik ez dugunez, nola erreazionatzen dugu? Zer egin dezakegu munduan dugun posizioa optimizatzeko? Ikuskizun...

Zailtasunak agerikoak dira, baina zer dugu alde? Garaiotan zerk egiten digu mesede, zer erabil dezakegu herri gisa dugun kohesioa berresteko edo indartzeko?

Erronka zaila da, jakina, abian diren joerak oso indartsuak baitira: gerrak, migrazioak, finantza-fluxuak, energien edo klima-aldaketaren krisiak... Uste dugu gure alde jokatzeko duela Farinellik aipatzen duen gako batek, zeinak esaten baitu globalizazioak "fluxuen planoan jarduten duela; eta, horregatik, lekuei lotuta mantentzen dela" (lekua = espazioa + jendea). Biztanleriari, memoriari, identitateari... lotutako kontzeptua da. Leku bateko jendea da bere lehen indargunea, eta hortaz, pentsatzen dugu gure herria batez ere jendea izan dela: hizkuntza, kultura, borondatea, mobilizazioa, kontzientzia, lanerako joera... Hor daukagu aukera bat; baina nabarmendu behar da, aktibatu. Eman behar zaio jende horri nazio kontzientziaren eta egitasmo bateratuaren ikuspegia.

Oñatiko jardunaldiak guzti hau jorratuko du. Hausnarketa zaila, egungoa. Etorkizuneko prospektiba. Jarraipena izango du?

Proposatzen dugun bezala, pentsatzen dut ezinbestekoa dela segida ematea; ez dugu herrialdearen etorkizuna jardunaldi batean konponduko, adituak zein trebe diren ere. Gure asmoa da eztabaida abiaraztea, oinarri berrien gainean planteatzea, eta ikertzen jarraituko duen *think tank* baterako oinarriak jartzea. Hori, lehenik eta behin, Oñatiko jardunaldiaren ponentziak eta ondorioak bilduko dituen argitalpen batean zehaztuko da. Baina, gero, kongresu honen edizio berriekin jarraitzea gustatuko litzaiguke, ekarpen, sarrera eta kapitulu berriekin. Denborak esango.

OHARRA : Jardunaldiak irekiak dira interesa duen oroientzat. Izen-ematea zabalik dago <https://nabarralde.eus/baskonia-globalizazioan-jardunaldia-onatin/> atarian

EGITARAUA

EKAINAK 13 (OSTIRALA) Oñatiko Unibertsitatea

19:00: "Baskonia en la Globalización", Santiago Alba Rico (idazlea eta filosofoa)

EKAINAK 14 (LARUNBATA) Oñatiko Kultura Etxean

Sarrera

09:15-09:30 Agurra: Izaro Elortza (Oñatiko alkatea); Anjeles Iztueta; Angel Rekalde (Nabarralde Fundazioa)

1. atala: *Begirada bat lurraldeari*

09:30-10:00: "Baskonia, sistema de ciudades", Juan Carlos Longás (ekonomista. UPNA)

10:00-10:30: "Baskonia, sistema de ciudades: Donostia-Baiona. Euskal gune hiritarra", Eguzki Urteaga (soziologoa. UPV/EHU)

10:30-11:00: "El espacio económico vasconavarro", Roser Espelt (ELA. Ekonomilaria)

11:00-11:30: "Euskal Herriaren beste bereizgarri bat: sindikalismo eraldatzailea", Ane Alberdi (ELA)

11:30-12:00: ATSEDENA

2. atala: *Begirada bat lekuari (kultura, identitatea, euskara)*

12:00-12:30: "Euskara, nazioa, identitatea, Globalizazioan", Karmelo Landa (UPV/EHU).

12:30-13:00: "Baskoniako historia eta memoria", Xabier Irujo (Renoko Unib., historialaria).

13:00-13:30: "Euskal Kultura: ekintzailea, kooperatiboa, auzolana, elkartasuna...", Joseba Sarrionandia (idazlea).

14:00: BAZKARIA

3. atala: *Zalantza etorkizuna*

16:00-16:30: "Baskonia instituzionala" / Iñigo Urrutia (jurista).

16:30-17:30 MAHAI-INGURUA: "Etorkizuneko erronkak: burujabetza, inmigrazioa, despopulazioa, euskalduntzea, demografía, turismoa...". Isabel Elizalde, Eneko Bidegain, Helene Larralde

17:30-17:45: Emaitzak, konklusioak. Agurra eta eskertzak

Bakardadearen korapiloa askatu

> **Aukeratu gabeko bakardadeari** aurre egiteko neurriak hartzeko lanketa abiatu du Debagoieneko Mankomunitateak

> Lanketa horren osagarri, herritarrek betetzeko **inkestak** zabaldu ditu

'**Debagoiena ehuntzen: bakardadearen korapiloa askatu**' izeneko eskualde mailako proiektua jarri du abian Mankomunitateak, indarrak batu eta proiektu bateratu bat lantzeko asmoz.

DEBAGOIENDARREN INPLIKAZIOA

Mankomunitatetik herritarren inplikazioa eskatu dute aukeratu gabeko bakardadeari aurre egiteko neurriak finkatuko dituen prozesuan laguntzeko. "Ikasturte honetan proiektuaren garapenerako taldea sortu da eta bertan herri guztietako ordezkari tekniko eta politikoak biltzen dira, ezagutza espezifikoak duten profesionalen gidaritzapean. Proiektuaren baitan hainbat ekintza konkretu planteatzen dira, irailean martxan jarriko direnak, nahiz eta badagoen ekainean egingo den lehen mahai-inguru bat ere", azaldu dute.

INKESTAK BETETZEAREN GARRANTZIA

Proiektua eskualdeko beharretara egokitu ahal izateko, elkarrizketa indibidualak egingen ari dira herri guztietan, eta lanketa horren osagarri,

Debagoieneko udaletako ordezkariak, tartean Lierni Altube, Oñatiko Gizarte Zerbitzuen batzordeko burua, egitasmoa aurkezten



herritarrek betetzeko inkestak zabalduko ditu Mankomunitateak. Ekainaren 20a bitartean bete beharko dira inkesta horiek, online edo ondoko taulan adierazten diren lekuetan inprimakiak jasota. "Honen inguruko informazioa etxebizitzetara ere helaraziko da gutun informatibo baten bidez", adierazi dute.

Datu hauek udan landuko dira eta irailean emaitzak herritarrei itzuliko zaizkie, egingo diren ekintza konkretuen aurkezpenarekin batera.

INKESTAK NON BETE OÑATIN

Aukeratu gabeko bakardadeari aurre egiteko ekintza plana landu ahal izateko, besteak beste, herritarrek betetzeko inkesta bat egingo du Mankomunitateak. **Ekainaren 20a baino lehen** bete behar da inkesta, online (ondoko QRa eskaneatuta), edo Oñatiko ondorengo tokietan egongo diren galdetegiak bete eta bertan egongo diren kutxetan sartuta:

- Udaletxea
- Gizarte Zerbitzuak
- Kirolegia
- Osasun zentroa
- Kultur etxea
- Pake Leku elkarteak
- Lagun Leku elkarteak (Eltzia)



Inkesta online betetzeko QRa



Ramon Irizar kalea, 3
Telf: 943 71 61 60

etxian@etxian.net
www.etxian.net



carpintería
GARIBAI
aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

“BEHAR DUZUN ZUNTZAK OPARIA DAKAR”

- 500 Mb-eko ZUNTZA
- + 2 MUGIKOR-LINEA
- + 50 GB PARTEKATZEKO

2. LINEA
DOAN
12 HILABETEZ

34,90 €/HIL
BEZa barne
Linea-kuota barne



Eta dohainik **eraman aire bidezko TRISTAR frijigailua** edozein mugikor + zuntza tarifa kontratatuz

PROMOZIO HONEK SOILIK HEMEN BALIO DU:



LIZKER
INFORMATIKA

ATZEKO KALE 32 | OÑATI, GIPIZKOA
TLF: 943 090 600



(BEZa barne). Ekainaren 30era arte, eskaintza kontratatzen baduzu: 500 Mb-eko zuntza + 2 mugikor-linea dei mugagabeekin eta partekatze 50 GB-rekin, hilean 34,90 € ordainduta 12 hilabetez. 12. hilabetetik aurrera, 2. mugikor-lineari eusten badiozu, prezioa 37,90 € izango da. Instalazioan 229,90 €-ko deskontua, 3 hilabeteko iraupen-konpromisoarekin. 5G abiadura, estaldura eta 5G terminalarekin lotuta. Existenziak amaitu arte. Ikusi gainerako baldintzak hemen: www.masmovil.es

MASMOVIL

AURREZTU, ETA KITO

"Heriotzaren momentua iristen denean, gure nahien arabera, erabakietan parte hartzeko aukera badugu"

Aurretiazko Borondateen Dokumentuaz hitz egin dugu Jesus Millas medikuarekin, Oñatiko Nagusien Mahaiak antolatutako hitzaldia tarteko



Bizitza motza eta heriotza azkarra izatetik, bizitza luzea eta heriotza geldoa izatera igaro gara denbora gutxian. Izan ere, gaur egun heriotza gehienak kronikoak, progresiboak eta luzeak izaten baitira. Askotan, baina, bizitza luzatzeak bizikalitatearen galera nabarmena ekarri ohi du berekin eta, agian, ez da hori guk nahiko genukeena. Zorionez, gaur egun badaukagu aukera gure bizitzaren amaieran eragina izango duten erabakietan parte hartzeko, eta zer-nolako osasun-zaintza jaso nahi dugun erabakitzeko. Horretarako dago, hain justu, **Aurretiazko Borondateen Dokumentua** (Bizi-Testamentua izenez ere ezagutzen dena). Dokumentu hau nork, nola, non eta zertarako egin daitekeen azaldu digu Jesus Millas medikuak.

Zer da Aurretiazko Borondateen Dokumentua (ABD)?

Gaixotasun larri baten ondorioz gure borondatea adierazteko gaitasuna galtzera iritsiko bagina, guretzat garrantzitsuak diren erabakiak jasotzen dituen idatzizko dokumentua da. Bertan adierazten dugu, besteak beste, zer-nolako osasun zaintza jaso nahiko genukeen, egoera sendaezin baten aurrean bizitza luzatzeko tratamendurik jaso nahi duzun ala ez, eutanasia nahi ote duzun (legez araututa dagoen kasuetan), transplanteak egiteko erabil daitezkeen organoak eman nahi ditudan ala ez, eta norberarentzat garrantzitsuak diren beste hainbat kontu ere

jaso daitezke dokumentuan.

Nork eta nola egin dezake ABDa?

Adinez nagusia den eta dokumentua bere borondatez bete duela kreditatzen duen edonork egin dezake ABDa.

Lau modu daude dokumentua betetzeko: **1.** Nork bere kabuz. Interneten (Euskadi.eus) eskura daitezke ereduak. Honela egiten badugu, hiru lekukok sinatu behar dute, dokumentua zure borondatez eta kontzienteki bete duzula egiaztatzeko. Lekukoak adinez nagusi izan behar dira eta ezin dute lehen edo bigarren mailako ahaidetasunik dokumentuaren egilearekin, ezta ondare

▲ Jesus Millas Ros

Osakidetza Debagoieneko ESIko etxeako ospitalizazio zerbitzuko medikua da. Zainketa aringarrien batzordeko burua, eta Euskadiko Eutanasia Bermatzeko eta Ebaluatze Batzordeko kidea.

loturarik ere.

2. Notaritzan ere egin daiteke ABDa, dagokion tarifa ordainduta. Kasu honetan ez da lekukorik behar. **3.** Aurretiazko Borondateen Erregistroan ere (herrialde bakoitzean dago bat) egin daiteke, baina, normalean, itxaron zerrenda luzea izaten da. **4.** Norbere herriko osasun zentroan (ez guztietan), badaude ABDa inskribatzeko Osakidetza gaitu dituen familia-mediku eta erizainak, eta hauen bidez ere egin daiteke dokumentua.

ABDa egiten dugunean, gure ordezkaria izendatzeko (pertsona bat edo gehiago izan daitezke, bikotea, seme-alabak...) aukera ere badago, gu geu gai ez garenean, gure ahotsa izan daitezen. Pertsona hauek ere sinatu behar dute dokumentua.

Komenigarria da, zure ustez, ABDa egitea?

Inportanteena, nire ustez, gai hauetaz berba egitea da. Ez gaude ohituta heriotzari edo gure bizitzaren amaierari buruz hitz egiten, baina niretako oso oso garrantzitsua da gai hauen inguruan berba egitea gure gertukoenekin, familiarekin, edota

Aurretiazko Borondateen Dokumentu gehien egiten dituen erkidegoa da Euskadi, Nafarroaren atzetik



familia medikuarekin, halako egoera bereziren bat gertatzen bada, nola jokatu jakin dezaten. Eta hori guztiori gero dokumentu batean jasotzen bada, hobeto.

Bestela, gai hauek aurrez zehaztuta uzten ez badira, senideek eta osasun profesionalak hartu behar izaten dituzte hainbat erabaki, eta ez da batera goxoa izaten, sufrimendua eta sentimenduak egoten direlako tartean. Asko errazten du gure borondateak aurrez berba eginda edo idatzita edukitzeak.

Gaur egun, gainera, Euskadiko ABDen erregistroa estatu mailakoarekin koordinatuta dago eta, beraz, beste erkidegoren batean zerbait larria gertatuko balitzait, eskura izango dute nik idatziz utzitako dokumentua.

Bestalde, hiltzeko laguntza edo eutanasia eskatu nahiko bagenu, baina eskatzeko ezintasun egoeran baldin bagaude, aukera bakarria izango litzateke Aurretiazko Borondateen Dokumentua egina izatea, eta hor gure nahia esplizituki agertzea, eutanasia norberak eskatu behar baitu, ezin du beste inork gure ordez eskatu.

Beraz, berriro esango dut, inportanteena, nire ustez, gai hauei buruz lasai eta askatasunez berba egitea da, hausnarketa egitea, eta horretarako oso lagungarria da Osakidetzaren webgunean dagoen '**Pentsatu, hausnartu**' dokumentua. Bizitzari balioa eta balioari kalitatea zerk ematen dion pentsatzeko baliagarria da. Duin bizitzeko ez ezik, duin hiltzeko eskubidea dugu, eta hori oso pertsonala da. Zenbat eta gehiago hitz egin, zenbat eta gehiago hausnartu, orduan eta ABD gehiago egingo dira. Estatu mailan ABD gehien dituen erkidegoa da Euskadi, Nafarroaren atzetik.

Garbi utzi behar da, bestalde, Aurretiazko Borondateen Dokumentua edozein unetan aldatu daitekeela, ezta?

Aldatu daiteke, bai, eta areago, esango nuke komeni dela tarteka gainbegiratzea, batez ere al-

daketaren bat gertatu bada gure osasunean. Ondoren erabakiko dugu aldaketaren bat egin nahi dugun ala ez. Dokumentua osorik ezeztatu edo atzera botatzeko aukera ere badago

Nora doa dokumentua eta noiz erabiltzen da?

Dokumentua Aurretiazko Borondateen Erregistroa bidaltzen da eta handik pertsona bakoitzaren historia klinikoan sartzen da, medikuek jakin dezaten, momentua iristen bada, dokumentua hor dagoela.

Noiz irakurtzen da dokumentua? Bakar bakarrik irakurtzen da paziente bere borondatea adierazteko gai ez denean; gaixoa berba egiteko gai den bitartean, dokumentuak ez du balio, eta berak adieraziko du zer nahi duen, dokumentuan idatzita dagoenaren kontrakoa bada ere. Bere hitzak balioko du.

Badira nahasmena sortu ohi duten hainbat kontzeptu: zainketa aringarriak, tratamenduari uko egitea, sedazioa, eutanasia... Argitu ditzagun.

Zainketa aringarriak beti-beti aplikatzen dira. Horretan aritzen naiz, hain zuzen, azken urte luzeetan. Zainketa aringarrien helburua izaten da, heriotzatik gertu dagoen gaixoaren sufrimendua arintzea ahalik eta gehien, eta, bide batez, baita senideena ere, eta hor sartzen dira ez bakarrik min fisikoa, baita alderdi sozial, emozional edota izpiritualak.

Tratamenduari uko egiteko aukera ere badago, ezta?

Bai, Pazientearen Autonomiaren 2002ko Legearen arabera, gure bizitzaren azkenetan, gaixotasun sendaezin bat edo defizit kognitibo eta funtzional larria eragiten digun dementziaren bat baldin badaukagu, gure bizitza edo hiltzeko prozesua luzatzeko tratamendu guztiak etetea eskatzeko eskubidea daukagu. Askotan, gaixoari dioten maitasunagatik, senideak bizitzari eusten saiatzen gara, nola edo hala,

Aurretiazko Borondateen Dokumentua egitea baino inportanteagoa da, nire ustez, heriotzari eta gure bizitzaren amaierari buruz berba egitea, hausnarketa egitea gure gertukoekin edota familia medikuarekin. Eta gero hori dokumentu batean jasotzen bada, hobeto



AURRETIAZKO BORONDATEEN DOKUMENTUAZ

jakin beharreko guztia aurkituko dugu goiko QRa eskaneatuta azalduko zaigun www.euskadi.eus webgunean.

baina gehiago bizitzea ez da beti aukera onena. Halako kasuetan, idatzizko dokumentu bat egotea asko laguntzen die senideei erabakiak hartzeko unean, tentsioak saihestu eta baretuz.

Zer da sedazioa?

Aukera bat baino gehiago, tresna terapeutiko bat da, sufrimendua arintzeko erabiltzen duguna bizitzaren azkenetan dauden gaixoeekin, berak edota familiak hala nahi badu. Helburua paziente babestea da, eta baita familia ere, bizitzaren amaiera modu sosegatuagoan eta ahalik eta modu duinenean gerta dadin. Botika jakin batzuk erabiltzen ditugu kontzientzia maila jaitsiz, ez sufritzeko, baina gorputzak bizirik jarraitzen du, ahitu arte. Normalean, esan bezala, agonia-egoeretan aplikatzen da, baina kasu batzuetan sedazio transitorioak egiten dira, eta itzulgarriak izan daitezke.

Eutanasia ez bezala.

Ez, eutanasia itzulezina da; ez dauka atzera bueltarik. Eutanasiaren helburua da kontzientzia maila jaitea bihotza gelditze-raino, eta 5-15 minutu inguru irauten du prozesuak. 2021ean onartu zen Eutanasia arautzeko legea, sufrimendu larri, kroniko eta ezintzailea dagoen kasuetarako. Orduz geroztik 150 bat burutu dira Euskadin. Proporzioan, eutanasia gehien burutu den erkidegoa da estatu mailan.

15 urtetik gora daramatzazu zainketa aringarrien arloan lanean, bizitzaren amaieratik hurbil dauden pertsonak artatzen. Nola bizi duzu?

Familia-mediku lanetan 22 urtez aritu ostean, zainketa aringarrien arloan trebatzea erabaki nuen, eta, egiari zor, ez naiz sekula damutu. Bizitzaren amaierako unean geure onena azaleratzen da eta, bai, emozionalki intentsua izaten da, baina aldi berean oso aberasgarria. Hartu-eman estu horiek asko aberasten naute profesional eta, batez ere, pertsona bezala. ■

Koixkarreko baselizak 100 urte betetzen ditu

> **Ekainaren 29an** ospatuko dute mendeurrena. Meza ostean luntxa eta argazki zaharren erakusketa egongo dira, besteak beste.



Jende ugari batu ohi da urtero Koixkarreko ermitan

Jesusen Bihotzaren egunaren hurrengo igandean ospatu ohi da urteroko jaiak Koixkarreko baselizan, eta aurtengoa pittin bat bereziagoa izango da, 100 urte betetzen baititu Aurrekomenditarren ermita kuttunak.

Goizeko 11:00etan ospatuko da meza, Paulo Anduaga buru dela eta Oñati Abesbatzako kideak lagun dituela. Meza ostean luntxa edo aho-gozagarriak izango dira bertaratzen diren guztientzat. Aurten, gainera, argazki zaharren erakusketa bat ere jarriko dute eliz atarian, eta plakaren bat ipintzeko asmoa ere ba omen dute, mendeurrena gogoratzeko.

BASELIZAREN HISTORIA

Harritzekoa bada ere, ez omen dago Koixkarreko Jesusen Bihotzaren elizaren sorrera eta eraikuntzari buruzko inongo agiri idatzirik. Zorionez, baina, Artixa kultur elkartearen ekimenez orain dela hamar urte argitaratu

**Goizeko 11etan
hasiko da meza
Koixkarren,
eta, urtero
legez, Oñati
Abesbatzako
kideek
abestuko dute**



zen 'Aurrekomendiko kontuak' liburuan badira ermitari buruzko hainbat datu, auzotarrei eta, 1949az geroztik kapilautza izan duten agustindarrei jasoak.

Duela ehun urte erlijioa oso sustraitua zegoen gure herrietan, bereziki baserri giroko jendearen artean, baina, jakina, Koixkar aldekoei nekeza egiten zitzaizkien igandero kalera joan

beharra meza entzutera. Horregatik erabaki zuten baseliza eraikitzea. Eztabaidak izan omen ziren kokalekuaren inguruan, baina, azkenean, egun dagoen tokian jasotzea erabaki zuten, Koixkar Garaikoaren parean, eta 1925eko maiatzean hasi omen ziren eliza eraikitzen, auzolanean, Albarritzako Esteban eta Araotzeko Santiago Bergara



Ingelesko Akademia
Listening Speaking Reading Writing

Maite Aia Kortabarria
Irakaslea
Arantzazuko Ama, 3 behea
943 53 36 57
20560 OÑATI (Gipuzkoa)
4sgoiena@gmail.com
www.4sgoiena.com

**Gezalaga
Margoak**

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com



1952an Koixkarren egindako prozesioaren irudia (Argk.: Artixa elkarte)

hargin ofizial lanetan jardun zutelarik. 1926ko maiatzaren 2an bedeinkatu zuen On Balentin Garmendia Oñatiko parrokoak.

Gastuei aurre egiteko fundazio bat sortu omen zuten, eta Koixkar Azpiko ondorengoak ziren Felix Murgiondo Arrazola apaizak, eta honen iloba Maria Nemesia Murgiondo Elortondok ipini omen zuten dirua ermita eraikitzeko.

KAPILAUTZA

On Felix Arrazola Orueta abadea izan zen Koixkarreko lehen kapilaua, eta, ondoren, On Jose Luis Arrazola eta On Eleuterio Iñarra. Baina 1949an Laterandar Kanonigo Erregularrek hartu zuten zerbitzua emateko konpromisoa, gaur egunera arte.

Haserako urteetan, apaizak asteburua igarotzera joaten omen ziren eta apopilo hartzen zituzten Koixkarreko bi baserrietako batean, txandaka, zapatutik astelehenera arte.

Domekero bi meza ospatzen

ziren, berdin uda eta negu, eta jendeak oso ondo erantzuten omen zuen; Garibai, Larraña eta Zubillaga aldeko baserritarrak ez ezik, Bergara eta Antzuolatik ere bertaraten omen zen jendea.

Igande eta jai egunetako elizkizunez gain, bataioak, jaunartzeak, ezkontzak eta bestelako sakramentuak ere ospatzen ziren bertan, eta sona handikoak omen ziren Garizuma garaiko gogo-jardunaldiak.

Elizkizunak ez ezik, beste-lako ekitaldiak ere antolatzen zituzten eta, hala, behin, zaldi karrera bat egin omen zuten, Beitti, Askazubi, Koixkar, Alkorta eta Jose Luis Galdos agustindarraren zaldien parte hartzearekin. Beste batzuetan aizkolarien erakustaldiak ere antolatu izan zituzten. Bestalde, hileko bigarren domekan elizan batzen zen dirua Errege egunean auzoko neska-mutikoei opariak emateko gordetzen zen, eta egun horretan ez omen zen inor falta izaten elizkizunera. ■



ELTZIA EGUNA ekainaren 14an

Aurten ere borborka jarriko dute eltzea ekainaren 14an ospatuko den Eltzia Egunean. Egun beteko egitaraua prestatu dute Eltzekideen artean, eta herritar guztiei luzatu nahi diete gonbita.

Egurediko 12:00etan emango zaio hasiera Eltzia Egunari, San Lorentzo auzoan zehar egingo den **triki-bertsu-poteo**arekin. Ondoren, 14:30etan Eltzekideen **bazkaria** hasiko da. Eltzian egoitza duten herriko talde eta eragileetako ordezkariak soilik dago zuzenduta bazkaria, horixe baita Eltzia Egunaren helburuetako bat, alegia, Eltzekideen arteko elkar ezagutza sustatzea eta elkarren arteko harremanak sendotzea. Bertako tabernan daude salgai tiketak (22€). Urtero bezala, Lagun Leku elkartearen bingoa girotuko du bazkalostea.

Arratsaldean (18:00) Izarra eta Mirari **erromeria** taldea ariko da, eta herritar guztiak daude gonbidatuta bertara. Giro ezin hobea egongo da. Eta eguna borobiltzeko, Irazan Antzerki Guneko kideek **DJ saioa** antolatuko dute gazteei zuzenduta.

Catalana Occidente **Mikel Egaña Urrutia**
Aseguruak

Eskatu aurrekontua konpromezu gabe:

- ✓ Heriotza
- ✓ Autoak
- ✓ Bizitza
- ✓ Istripuak
- ✓ Ontziak
- ✓ Osasuna
- ✓ Etxebizitza
- ✓ Aurrezkiak
- ✓ Laborantza

Halbidea: Motxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@gentes.catalanaoccidente.com

PINTURAS URBIA MARGOAK

Ultzegein kalea, 3 - Behea B / 652 710 837



Irisingarritasunaren aldeko konpromisoa berretsi du udal gobernuak

◀ Izaro Elorza Arregi, alkatea, eta Iñigo Ruiz Barron, udaleko Hirigintza batzordeko burua

Aurtengorako eta datozen urteetarako egitasmoak aurkeztu ditu

Herriaren irisingarritasuna hobetzen jarraitzeko duen konpromisoa berretsi zuen udal gobernuak maiatzaren 15ean eman zuen prentsaurrekoan, argi utziz, irisingarritasuna, emaitza baino, bitartekoa dela EH Bidurentzat. "Herri inklusibo bat eraikitzea ezinbestekoa da pertsona guztiek, adina, gaitasuna edo egoera pertsonala edozein izanda ere, udaleko espazioak berdintasunez eta autonomiaz erabiltzeko aukera izateko. Irisingarritasuna ez da soilik azpiegitura kontua; gizarte justuago eta kohesionatuago baten oinarria da". Halaxe azaldu zuten zein den udal gobernuaren irisingarritasun eredua Izaro Elorza alkateak eta Iñigo Ruiz Hirigintza batzordeburuak.

2011. urtean, EH Bildu udal gobernura iristearekin batera, irisingarritasunaren paradigma aldatu zela adierazi zuen alkateak. "Irisingarritasuna ulertzeko eta egiteko modu berri bat. Ordutik, irisingarritasun unibertsala lortzeko konpromiso irmoa du Udalak".

Ildo horretan, iragan urteetan irisingarritasun arloan egindako hainbat obra eta esku-hartze gogora ekarri zituzten: "Errekalde auzo osoa egin da, espaloia eta bidea kota bakarrean jarri; Olakua auzoko bost fase egin dira, oinezkoendako bide seguruak sortuz eta argiteria hobetuz; Martzelino Zelaia kalea egokitu da, bidea eta espaloia berdinduz; herrigunea eta zenbait landa auzoren arteko lotura hobetzeko lanak burutu dira, hala nola, Ugarkalde-Olabarrietako bidegorria eta Lezesarriko oinezkoen bidea; eta haur nahiz gaztetxoan segurtasuna hobetzeko lanak ere egin ditugu

Irisingarritasuna, emaitza baino, bitartekoa da guretzat. Herri inklusiboa eraikitzea da helburua; pertsona guztiek, adina, gaitasuna edo egoera pertsonala edozein izanda ere, udaleko espazioak berdintasunez eta autonomiaz erabiltzeko aukera izan dezaten.



kiroldegia eta Txantxiku ikastola artean, eta Urgain eskolaren kanpoaldean".

AURRERA BEGIRAKO EGITASMOAK

Aurten bertan lan esanguratsuak egitea aurreikusten dutela azaldu zuen Ruizek. "San Lorentzo auzoko 11. faseari ekingo diogu, oztopo arkitektonikoak ezabatu eta herritarren inklusibitatea handituz. Horretarako, 2025eko udal aurrekontuetako irisingarritasuneko diru partidak indartu ditugu".

Mendiko Kaleko urbanizazioa berritzeko lanei ere aurtun ekingo zaie, azpiegiturak berritzeko ere probestuko dutelarik. "Aspaldi jaso dugu proiektua, baina azken urteetan bertan egin diren eraikuntza lanen ondorioz, atzeratuz joan da", argitu zuen Hirigintzako buruak.

Torreauzo eta Usako lotuko dituen bidegorria ere, —lanak hasita daude, jada— aipatu zuen Ruizek. "Usako inguruan aparkatzeko arazoak sortzen dira, eta bizikletaren erabilera sustatu nahi dugu"

Foruen plazako berdeguneak, aisialdi gunea eta azoka ingurua berritzeko lanak ere aurtun bertan egin asmo ditu udalak. Bestalde, Olaiturri tamaina handiko ibilgailuak sartu ahal izateko arrapala bat egokituko da, eta baita oinezkoentzako sarrera irisgarri bat, gaur egun eskailerak dauden eremuan. "Esku hartze honek ahalbidetuko digu Olaiturriko espazioaren erabilera areagotzea, kultura eta aisialdi izaerako hainbat ekitaldi bertara eraman ahal izateko".

'Parke Gorria' izenez ezaguna den Etxaluzeko

Kamioientzako sarbidea egokitzeko lanak hasi dira Olaiturrin



Aurtengo San Migel jaietan bertan kokatuko dute barraken gunea

Aurtengo San Migel jaietan plaza ondoko gunea berritze lanetan murgilduta egongo da eta, ondorioz, bertan egon ohi diren barrakak Olaiturrira eramango dituzte. Horretarako, kamioiak bertara sartu ahal izateko arrapala bat egokituko da.

Baina lan honen helburua ez da barrakentzako behin behineko kokagune bat prestatzea, baizik eta, etorkizunera begira, Olaiturriko eremua kultur eta kirol ikuskizunetarako erabili ahal izateko prestatzea, eta halakoetarako behar diren azpiegiturak garraiatuko dituzten kamioientzako sarbide aproposa egokitzea. Kamioientzako arrapala ez ezik, oinezkoentzako arrapala bat ere egokituko da eskailerak dauden inguruan, irisgarritasuna bermatzeko, eta argiztapena ere hobetuko da. Kamioientzako sarbidea Lizaur kaletik egokituko da, jolas-parkea kenduta. Lurkidek egingo ditu lanak, 48.388 euroko aurrekontuarekin.

parkea egokitzeko lanak ere aurtan egingo ditu udalak. "8-14 urte arteko gazteentzako elkargune eta jolas leku bat egokituko dugu bertan, baina, horrez gain, herritar guztien aisialdirako gunea izatea ere nahi dugu, eta, beraz, helduak eta zaintza lanak bertan gauzatzeko dituzten herritarrei ere erantzun nahi diegi proiektuarekin. Horretarako, itzalguneak, babesguneak, argiztapen egokia eta altzarien ergonomia ere kontuan hartuko ditugu", aurreratu zuen Ruizek.

"Ikusten denez, badago irisgarritasunaren aldeko apustua egiteko konpromisoa. Badago irisgarritasun plan bat, eta marko bat, irisgarritasuna ez delako obra simple bat. Irisgarritasun ereduak esangura handia du, eragina duelako herri eremuan. Gurea, herri inklusibo bat, guztiondako herri bat, eraikitzeo irisgarritasuna da", gehitu zuen Ruizek.

Hurrengo 10 urteetan (2025-2035) gauzatzeko hainbat proiektu ere esku artean dituztela aurreratu zuen Hirigintzako arduradunak, eta horietako batzuk aipatu zituen: Olakua (fase berria —auzoko lanak amaitzeko—), San Lorentzo (fase berria —auzoko lanak amaitzeko—), Kale Zaharreko planaren barruan (Kale Zaharra, Lizaur, Aita Madina, Otadui zuhaiztia eta Kasablanka) eta Berezao (irisgarritasun lanekin jarraitzea).

AURTEN EGINCO DIREN BESTE LAN BATZUK:

► **Foruen plazako berdeguneak, aisialdi gunea eta azoka inguruak berrituko dira**

► **Mendiko Kaleko urbanizazioa berritzeko lanak hasiko dira**

► **Torrauzo eta Usako arteko bidegorria egokitzeko lanak hasita daude**

► **Etzaluzeko parkea berritu eta egokitzeko lanak hasiko dira**

► **San Lorentzako urbanizazio berritzeko II. faseko lanei ekingo zaie**

Emakumeen Etxerako bi teknikari lanpostu betetzeko deialdia

Oñatiko Emakumeen Etxea izango den zerbitzurako bi teknikari lanpostu oposizio-lehiaketa ireki bidez betetzeko deialdia argitaratu du Udalak. **Ekainaren 13ra** arteko epea dago izena emateko. Lanposturako deialdian (www.oñati.eus/tramiteak/lan-eskaintza-publikoa) zehazten dira deialdira aurkeztu ahal izateko baldintzak eta lan bete beharko diren funtzioak.

Ekainaren 14an irekiko da bainu denboraldia Usakon eta Ur txorrotetan

Ekainaren 14arekin batera irekiko da bainu denboraldi ofiziala Usakon, eta irailaren 14ra arte luzatuko da. Horrek esan nahi du, hiru hilabete horietan sorosle zerbitzua egongo dela bertan, egunero, astelehenetik igandera, arratsaldean, 15:00etatik 20:00ak arte.

Eltzia aurrealdeko Ur Txorrotak parkean ere ekainaren 14an hasiko da denboraldia, eta irailaren 14ra arte egunero egongo dira martxan ur txorrotak 11:00etatik aurrera.

EGUR-LAN
ARROZTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BERZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL/ FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

Oñatiko Energia Plana aurrerabidean

- > Auto elektrikoentzako **karga-puntuak** egokituko ditu Udalak Zubikoa eta Kalegoienako parkinetan
- > **Azkoagaineko** argi fokuetan eta **kale-argiteria** publikoko 688 luminariatan LED teknologia ezarriko da, kontsumoa murrizteko

Udal gobernua aurreko legealdian aurkeztu zuen Energia Plana garatzen jarraitzen du, eta horren erakusgarri dira laster abian jarriko diren esku-hartze berriak.

AUTO ELEKTIKOENTZAKO KARGA-LEKUAK

Mugikortasun iraunkorra sustatzeko asmoz, Zubikoa eta Kalegoienako lurpeko aparkalekuetan auto elektrikoentzako karga-puntuak instalatzeko esleipen prozesua abian jarri du Udalak. Guztira, 60.000 euro inguruko inbertsioa egingo du eta, horri esker, aukera egongo da aldi berean zortzi auto kargatzeko, lau Zubikoan, eta beste hainbeste Kalegoienan. Txartel bidez ordaintzeko sistema izango dute eta, beraz, ordainketa egiteko ez da izango derrigorra aplikazio konkretu batean izena emanda egotea. Ekitermik enpresak irabazi du lizitazioa eta datozen egunotan sinatuko da kontratua. Hiru hilabeteko epea aurreikusten da lanak burutzeko.

ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA

Efizientzia energetikoa hobetzeko asmoz, Azkoagain futbol zelaiko argiteria berritu eta LED teknologiadun fokuak jarriko dira bertan, 85.000 euro inguruko inbertsioa eginda. Gogoratu, berriki, Zubikoako kantxa urdineko eta pilotalekuko argiterian ere ezarri direla LED teknologiadun lanpara berriak, argiztapena hobetu eta kontsumoa murrizteko helburuarekin, beti ere. Lizitaziora aurkeztutako enpresen proposamenak baloratzen ari da udala, baina, edozein modutan, aurrendenboraldia hasterako argiak aldatuta egotea da udalaren nahia.

Kontsumoa murrizteko helburu berberarekin, beste esku-hartze garrantzitsu bat egingo da datozen hilabeteetan, izan ere, kale-argiteria publikoko 688 farolatan ere LED teknologiadun argiak ipiniko baititu udalak, 390.000 euroko inbertsioa eginda. Esleipen prozesu hau 2023ko abenduan jarri zuen abian Udalak, baina erreklamazio bat tarteko, nahi baino gehiago luzatu da, baina datozen asteetan hasiko dira 688 kale-argi berritzeko lanak. Azkenengo argi-azterketen emaitzaren zain daude.

Gaur egun Oñatin dauden 2.741 argi puntuetatik 1.642 LED teknologia dute, baina gainerako 1.099ak sodio lurrunezkoak dira, eta kontsumo altua dute. Orain, esan bezala, horietako 688 berrituko dira. Horri esker, energia kontsumoa %75 jaitea aurreikusten da, eta 71.000 euro aurreztean urtean.

IRAUNKORTASUNA HELBURU

Esku hartze hauekin guztiekin, eta lehendik egindako beste batzuekin –gogoratu, adibidez, berriki autokontsumorako eguzki plakak jarri direla kiroldegiko teilatuan–, energia garbiaren aldeko apustuan eta iraunkortasunean urratsak ematen jarraitzeko borondate irmoa berretsi du udal gobernua. "Energia efizientzian, kontsumoan, sorkuntzan, burujabetzan, berriztagarrietan, bidezko eruedetan... sakontzeko konpromisoa dugu, gaurko eta etorkizuneko energia erronkei aurrea hartzeko asmoz".



Emakumeen Etxea

Ikasturtean zehar landutakoa partekatu eta ospatzeko topaketa egingo da **ekainaren 11n**

'Emakumion Etxia Eraikitzen' parte hartze prozesuaren baitan, topaketa berezia egingo da ekainaren 11n, asteazkena, Eltziako Topalekuan (18:00-20:00). Ikasturtean zehar etxearen inguruan egindako lanketa partekatu eta ospatzeko aukera egongo da bertan. Zatoz, eta izan zu ere etxearen parte!

'Plazer disidenteak, gure plazerak'

Solasaldia eta tailerra

'Oñatiko LGTBIQ+ diagnostikoa' egiteko prozesuaren baitan, 'LGTBIQ+ desira, plazerra eta ikusgarritasuna' izenburua duen solasaldia egongo da **ekainaren 5ean**, kultur etxean (18:00), Claudia Ugartek eta Mer Gomezek gidatuta.

Ekainaren 7an, larunbata, tailerra egingo da San Juan Kaleko lokalean (11:00-13:00), 'Gozatzen dugunean irabazten dugu: plazeraren praktika feministak' izenburupean, Laura Muelasek gidatuta. Izena eman behar da: 688 621 213 / Igtbi@onati.eus

Herriko ikastetxeen inguruetakako airearen kalitatea aztertzeko ekimena abian da

Bagabiltz-Eskolako Bidea proiektuaren baitan burutzen ari da ekimena, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleen partehartzearekin. Ikasturte amaieran ezagutuko dira datuak.

Oñatiko Udaleko Hezkuntza Sailak eta herriko ikastetxeek elkarlanean garatutako Bagabiltz-Eskolako Bidea proiektuak Oñatiko ikastetxeetako airearen kalitateari buruzko azterlana jarri du martxan ikasturte honetan. Helburu nagusia: Airearen kalitatea ezagutzea ikastetxeen inguruneetan, eta baita haurren eta nerabeen ikuspegitik garrantzitsuak diren herriko gainerako guneeetan ere.

Ikerketa herritarren zientziako metodoen bidez egin da, eta nitrogeno dioxidoaren (NO₂) mailak aztertzen ditu. Osasunari eragiten dion gas kutsatzaile nagusietako bat da hori, eta oso lotuta dago trafikoarekin eta egunero desplazatzeko dugun moduarekin.

LLEHEN HEZKUNTZAKO 5-6 MAILETAKO IKASLEAK
Oñatiko ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleek eta irakasleek parte hartu dute prozesu honetan. Alde batetik, Udalak prestatutako material didaktikoak landu dituzte ikasge-



» **Ondoko argazkikoa bezalako neurgailuak ipini dituzte herriko 25 puntutan: ikastetxe inguruetan eta haurren ikuspegitik garrantzitsuak diren lekuetan (plazak, jolasteko lekuak..)**



lan, mugitzeko moduaren eta arnasten dugun airearen kalitatearen artean dagoen harremana aztertu dutelarik. Horrekin batera, NO₂ neurgailuak kokatu diren lekuak hautatu dituzte, eta horietako batzuk jartzen eta jasotzen lagundu dute.

Hautatutako neurketa-puntuak ikastetxeen inguruan eta haurren ikuspegitik garrantzitsuak diren lekuetan kokatu dira –plazak, jolasteko eta harremantzeko lekuak nagusiki–. Guztira, dosimetroak (hodi pasiboak) herriko 25 puntutan jarri dituzte.

LABORATEGI HOMOLOGATUA

Oñatin erabiltzen ari den metodologia nitrogeno dioxidoaren (NO₂) mailak neurtzeko Europako hainbat proiektutan erabiltzen den bera da. Lortutako laginak Erresuma Batuko laborategi homologatu batean aztertuko dira, eta emaitzak ikasturte honen amaieran ezagutuko dira.

Udalerrri bateko ikastetxe guztien inguruko airearen kalitatea aztertzen den lehen esperientzia da Gipuzkoan.

Oñatin erabiltzen ari den metodologia nitrogeno dioxidoaren (NO₂) mailak neurtzeko Europako hainbat proiektutan erabiltzen den bera da. Lortutako laginak Erresuma Batuko laborategi homologatu batean aztertuko dira

Udalerrri bateko ikastetxe guztien inguruko airearen kalitatea aztertzen den lehen esperientzia da Gipuzkoan

JUANJE MARGOAK
627 818 247

**ARANBURU
ALTZARIAK**
Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**

Landa-auzoetarako hainbat hobekuntza proposatu ditu EAJren udal taldeak

Landa-auzoetako bizilagunek ere zerbitzu publiko duinak izateko eskubidea dute, diote jeltzaleek

Udalerriko landa-auzoetako bizilagunen bizi-kalitateari "larriki" eragiten dizkieten hainbat gabezia identifikatu ostean, EAJ-PNVren udal taldeak hainbat proposamen "bideragarri eta errealista" aurkeztu ditu egoera hobetzeko asmoz, "landa auzoetako bizilagunek ere zerbitzu publiko duinak izateko eskubidea dutelako", jeltzaleek prentsa-ohar bidez adierazi dutenez.



Angel Mari Biain eta Amaia Erostarbe, EAJ-PNV udal taldekoak

MENDI PUBLIKOETAKO EGURRA

Udal jabetzakoak diren baso-eremu zabaletan sortzen den egur soberakina (0km-ko biomasa) Oñatiko edozein herritarrentzat eskuragarria izan beharko litzatekeela uste du EAJk. "Hainbat urtetan Oñatiko herritarrek herri-basoetako baliabide natural horren aprobetxamenduz baliatu ahal izan dute, baina gaur egun ezinezkoa da; EH Bilduren udal gobernuak praktika hori kendu egin zuen udalerriko zati handi batean, sarbidea edo aukera hori Arantzazuko biztanleei soilik mugatuz". Jeltzaleen ustez baliabide hau modu orekatuan banatzea bermatu beharko litzateke, energia gero eta garestiagoa den garai honetan.

ARAOZKO AZPIEGITURA HIDRIKOAK

Aitzgaingo ubideak (Ur Jauziak S.A.-ren azpiegiturakoa) ur-galera handiak ditu mantentze-lanen faltagatik, adierazi du EAJk. "Martxan zegoen bitartean, kanal honek bi funtzio zituen: batetik, Aitz-

» **Herri basoetako egur soberakinak (0km-ko biomasa) herritarren artean modu orekatuan banatzea bermatu beharko litzateke**

» **Zubillagako eta Urrexolako hainbat baserritan oraindik ez daukate edateko urik**

» **Herribus zerbitzua Garibai eta Zañartu auzoetara zabaltzea proposatzen dugu. Erraz egin daiteke, kostu handiegirik gabe**

gaingo depositua hornitzea, elektrizitatea sortzeko; bestetik, gaur egun desagertuta dagoen azindari ura ematea udan eta, bide batez, bertako larreen iraunkortasuna ahalbidetzea". Horregatik, jeltzaleek eskatzen dute Aitzgaingo kanala konpontzea, bi funtzio horiek berreskuratzeko.

Bestalde, gaineratzen

du EAJk, Arantzazun bezalaxe, Araotzen ere ez da hondakin-uren kanalizazioa konpondu, "eta horrek ingurumen- eta osasun-arriskua dakar inguruko bizilagunentzat".

UR EDANGARRIA

2025ean herriko zenbait landa-auzo daude edateko urik

ez duten baserriekin, adierazi dute jeltzaleek. Zubillagan, adibidez, herrigunetik kanpo dauden hainbat baserri eta familia daude edateko ur barik: Erguina (Matromai, Matromai Etxebarri, Erguina Etxebarri, Erguina Zaharra), Elorregi (Elorregi Aumategi, Errota, Elorregi Haundi) eta Askazubi (Kortazar, Alkorta eta Askazubi). Urrexolan ere badira edateko urik ez duten baserriak: Baltzola, Beiti, Urrexolako Errota, Bainuetxea...

"Horiek guztiak iturri propioekin hornitu behar dira, edateko txarra den urarekin", azaldu du EAJk; "Arantzazun aurreko legealdian konpondu zen egoera hori, baina Zubillagan oraindik ez da aintzat hartu, hain oinarrizko eskubidea izan arren".

GARRAIO PUBLIKOA HOBETU

Herribus zerbitzuak gaur egun beilatokian amaitzen du bere ibilbidea, Garibai eta Zañartuko bizilagunak, adibidez, kanpoan utziz. Horregatik, EAJren udal taldeak Herribus Garibaiko Argiñena baserriraino eta Zañartuko Largokua baserriraino zabaltzea proposatzen du. "Hobekuntza erraza da, eta auzokide gehiagori egingo lieke mesede, kostu gehigarri handirik eragin gabe".

Gai hauei premia erantzutea eskatzen dute jeltzaleek. "Guk gure lankidetzak eskaintzen dugu irtenbideak bilatzeko eta elkarlanean aritzeko", adierazi du Amaia Erostarbe bozeramaleak.



Zuzena ez den informazioa zabaltzea egotzi dio udal gobernua EAJri

"Ez dugu ulertzen, egindako hainbat eskaeren inguruko informazioa esku artean izanda, zuzena ez den informazioa edo erdizkako informazioa emateko estrategia", adierazi du EH Bilduk

Landa-auzoetarako zenbait hobekuntza proposatu EAJk zabaltzeko duen oharrean lotuta, hainbat argibide eman nahi izan ditu udal gobernua, "beste behin, zuzena ez den informazioa edo erdizka emandakoa eskaini zaielako herritarrei".

EGUR SOBERAKINA

Udal gobernua gezurtatu egin du basoen kudeaketan sortutako egur soberakina herritarrek baliatzea gaur egun ezinezkoa dela dioen baieztapena. "Ez dugu urrunegi joan behar hori gezurtatzeko", azaldu du EH Bilduk. "Duela bi aste egin genion herri jabetzako zenbait baso kudeatzeari (Torretxebarri, Aldailuze, Iraban...), martxan dira baso-lan horiek, eta bertako su-egurra herritarren esku uztea izan da asmoa hasiera hasieratik. Horixe bera jakinarazi genien EAJ-ko kideei Landa Garapen eta Ingurumen batzordeetan. Beraz, ezinezkoa dela dioten hori, egiten ari gara, eta jakinaren gainean daude".

AITZGAINGO KANALA

Aitzgaingo kanala konpontzeko eskaerari dagokionez, udal gobernua argitu du kanala Ur Jauziak enpresarena dela, "oposizioak ondo dakien bezala", eta berari dagokiola hari lotutako erabakiak hartzea, ez Udalari. Gainera, argitu du, 'Goilarre' programaren baitan, kanalean ura falta denean bete egiten direla zonaldean ganaduarentzat dauden askak; "2022tik, ur

falta dagoen sasoitan Udalak eroaten du ura bertara, eta, hortaz, larreratzek ez du etenik izan ur gabeziagatik, batzordean EAJri azaldu zitzaion moduan".

UR EDANGARRIA

Zenbait baserritan ur edangarria bermatzeko egindako eskaeraz ere mintzo da udal gobernua. "Batzordean soilik Zubillaga auzoa aipatu zuen EAJk. Jakinarazi genion beste hainbat auzotan ere badaudela Urkuluko ur edangarriaren sistematik kanpo dauden baserriak, eta, Arantzazun egin moduan, Udala

badabilela horri irtenbide iraunkor bat emateko lanean. Beraz, jakin badakite lanean ari garela horretan ere".

HERRIBUSA

Herribusa Garibai eta Zañartu auzoetara zabaltzeko dagokionez, udal gobernua azaldu du saiakera egin duela, baina zerbitzua eskaintzen duen *Avanza* enpresak ezezkua eman diola, argudiatuz horrek eragina izan dezakeela Herribusaren maitasunean eta, beraz, zerbitzuan. "Hori ere jakinarazi zitzaion EAJri batzordean", argitu du gobernu taldeak,

eta gogorarazi du, "Udalak *Auzotaxi* zerbitzua daukala martxan, landa-auzoen eta herrigunearen arteko lotura eta desplazamenduak bermatzeko. Autobus geltokia 350 metro baino gehiagora dagoen baserrian erroldatuta dagoen herritar orok du eskura zerbitzu hori".

Udal gobernua kezka azaldu du oposizioaren oharrengatik eta proposamenak helarazteko erabilizko bidearengatik. "Benetan erakitzailea den oposizio lan bat egin gura bada, udalean badira eztabaidatze eta erabakitzeko espazioak". Era berean, elkarlanerako borondatea berretsi du gobernua, "azken urteetan oposizioak behin eta berriz erabili izan duen estrategia, oraingoan bezala, kontrako noranzkoan doan arren. Ez dugu ulertzen, egindako hainbat eskaeren inguruko informazioa esku artean izanda, zuzena ez den informazioa edo erdizkako emateko estrategia".

Garraio publikoa eztabaidagai, berriz ere

Garraio publikoaren harira, EAJk zenbait komunikabideetara bidalitako prentsa oharrek eztabaida eragin zuen maiatzaren 29ko osoko bilkuran. Prentsa ohar horretan, EAJk hainbat proposamen egiten ditu, "autobus zerbitzuaren kalitatea, irisgarritasuna eta eraginkortasuna hobetzeko, herritar gztientzat kalitatezko garraio publiko bat bermatuz". Hala, Oñati eta hiriburuen artean zuzeneko zerbitzuak jartzea eskatzen dute jeltzaleek. Ildo berean, Oñati eta Elorregi artean 15 minuturuko konexioa eskatzen dute, Oñati-Bergara linea berreskuratuz, edo Oñatiko Herribusaren bidez zerbitzua eskainiz. Horren harira, "iniziatiba falta" egotzen dio udal gobernua.

Autobus zerbitzuari berari dagokionez, hainbat arazo daudela salatzen du EAJk; hala, zenbait ordutan lineak saturatuegiak daudela, puntualtasun arazo larriak dituztela, eta autobusen mantentze lanak hobetu behar direla.

Mugi txartela mugikorraren bidez erabili ahal izatea eta autobusen kokapena denbora errealean kontsultatzeko *App* bat garatzea ere eskatzen du EAJk.

UDAL GOBERNUAREN ERANTZUNA

Maiatzeko osoko bilkuran udal Zerbitzuak batzordeko buru Xabier Igartuak erantzun zien, esanez, "harriduraz eta kezka" ikusi dutela EAJren jarrera gai honetan.

Igartuak azaldu zuenez, Lurraldebusen zerbitzuan dauden gabeziak aztertzeke asmoz bilera eskatu zioten EAJri apirilaren 2an, eta handik bi hilabetera gauzatu zen. "Tonu onean joan zen. Amankomunean ikusten genituen gabeziei Foru Aldundiak atera behar duen lizitazio berria irtenbidea bilatzeko lan egiteaz hitz egin genuen, ixilean, eta gure harridurarako, hurrengo egunean EAJren prentsa oharra irakurri genuen".

Herri eta hirien arteko autobus zerbitzua EAJk gobernatzen duen Foru Aldundiaren eskumena izanik, beraien alderdikideei etxeko lanak egitea eskatu beharrean, arazoaren ardura Oñatiko udal gobernuaren gain ipini nahian ibiltzea egotzi zien Igartuak. "Dinamika arduragabea" hartzea leporatu zien, "batzordeetan lan egin ordez, komunikabideen bidez desitxuratutako eztabaida bultzatu nahian".



Arranoaitz eguna, ekainaren 21ean

Musika, bakarrizketak, haur jolasak, sukalde eta taberna zerbitzua... Egun beteko egitaraua prestatu dute

Aurrekomendin eta, zehazki, Arranoaitz inguruan egun-pasa ederra egiteko aukera egongo da ekainaren 21ean. Egitarau bete-betea prestatu dute. Berritasunen artean, aurten bakarrizketa saioak egongo dira **Ander Malbadi** eta **Maialen Sorzabalbereren** eskutik.

Erromeria eta trikiti giroak ere bere tarteak izango du, **Uxue, Mikel** eta **Hekthor folk**-en eskutik. Eta musikarekin jarraituz, **Petti** artista beratarrak goxatuko du eguerdi partea, bakarlari formatuan. **Edu Zardoya** kantautore nafarra ere bertan izango da, eta herriko musikariak ordezkatzuz, **Estolda** taldekoak ariko dira.

TABERNA ETA SUKALDE ZERBITZUA

Taberna eta sukalde zerbitzua ere martxan egongo da. Iaz bezala, paella dastatzeko aukera, errazioak, fritoak... Arrano tabernan 2 euroren truke baso berrerabilgarriak daude eskuragarri. Edalontziak hartzeko deia egiten dute antolatzaileek, jatekoa eta edana kalkulatzeko laguntzeko. Haur parkea ere egongo da, bertara hurbiltzen diren haurren jostagarri.



Petti

Ander Malbadi

Maialen Sorzabalbere

Hekthor Folk

EKAINAK
14FAN HEMENDIK
EGUNA

'FAN HEMENDIK!' aldarrikapena entzungo da aurten ere Oñatin

Ekainaren 21ean ospatuko da aurten 'Fan Hemendik!' eguna, "Oñatik kuartelik gabeko herria izan nahi duela aldarrikatzeko", antolatzaileek adierazi dutenez. Arratsaldeko manifestazioa izango da, ohi bezala, eguneko ekitaldi nagusia, baina eguerdian hasiko dira giroa berotzen, eta eguna borobiltzeko kontzertuak izango dira Irunberri plazan. Herriko hainbat eragilek egin dute bat 'Fan Hemendik!' dinamikarekin, datozen egunetan sare sozialetan ikusi ahal izango dugun moduan. Antolatzaileek dei egiten diete herritarrei parte hartzera.

EGITARAUA

12:30 Karro-poteoa DJ Izurarekin, Bogan hasita

14:30 Bazkari herrikoia. Tiketak Arranon salgai. Bazkalostea Joane eta Uxuek girotua

19:00 MANIFESTAZIOA, Foruen plazan hasita, 'Kuartela herriarentzat! Fan Hemendik!' lelopean.

21:00 Kontzertuak (Irunberri plazan):

- Txit Karramarro
- Rodeo
- Zopilotes Txirriaosen bertsoak
- DJ Sarri
- DJ Biki Bikiak

GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarteen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47
Oñati

AYESTARAN
RAIKUNTZAK S.L.

Aita Lizarralde, 8-Behea / 943716454 / iayestaran.com

obra berria / eraberritzeak / etxebizitzaren eraberritzeak /
igogailuak / kota 'O' lanak /
fatxada eta teilatuak



Errekaldeko jaien testuinguruan ateratako talde argazkia

'HERRI LIBRE BAT! EUSKAL HERRIAK ERABAKI'

Ekainaren 7an Bilbora joateko deia luzatu du Gure Esku-k

Autobusak antolatu dira Oñatitik. Ekainaren 5era arte eskura daitezke txartelak

'Herri libre bat' lelopean, ekainaren 7an Bilboko kaleak herritarrez betetzeko deialdia egin du Gure Esku ekimenak, eta Oñatitik ere autobusak antolatzen ari dira arratsaldeko 17:30etan La Casillatik abiatuko den mobilizazio nazionalen parte hartzeko. Kale Barrian Gure Esku-k daukan lokalean eskuratu ahal izango dira txartelak ekainaren 5era arte (11:00-13:00 eta 18:00-20:00). Oñatiko Gure Esku-k animatu egin nahi ditu herritarrak Bilbora joatera, erabakitze eskubidearen alde, herri gogoa, nazio sentimendua, Euskal Herriaren burujabetzaren aldeko jarrera bizi-bizirik daudela erakustera. "Mugitzen ari dira gauzak, bai Euskal Autonomia Erkidegoan, bai Nafar parlamentuan, baina Ipar Euskal Herrian ere, eta, beraz, kalera ateratzeko garaia da. Inoiz baino nabarmenagoa da herri honek burujabetza tresnak behar dituela eguneroko behar eta erronkei erantzuteko (pentsioak, gutxieneko soldata, klima larrialdia...). Une historiko inportantean gaude. Sinets dezagun. Inportantea da kalera ateratzea".

Xabier Igartua, EH Bilduren Gipuzkoako mahai politikoa

Maiatzaren 24an EH Bilduren Gipuzkoako Herrialdeko Batzarra elkartu zen. Besteak beste, Gipuzkoako Mahai Politikoa osatuko duten kideak berretsi zituzten bilkideek, eta tartean izango da Xabier Igartua, Oñatiko udaleko zinegotzia, Debagoieneko ordezkari instituzional gisa.

Nekane Zinkunegi arduradun politikoa nabarmendu zuen zuzendaritza berrian batutako kideen herriarekiko eta herritarrekiko konpromisoa, eta politikarekiko grina. "Egungo foru gobernua unean unekoa kudeatzera mugatzen ari da eta, horren aurreran, EH Bildu prest dago lidergoa hartu eta etorkizuneko erronkei erantzuteko" adierazi zuen Zinkunegik.



Oñati Institutoko ikasleak irabazle Kristalizazio lehiaketan

Maiatzaren 23an Leioako EHUko Zientzia eta Teknologiako fakultatean ospatu zen Euskal Herriko IX Kristalizazio Lehiaketa, eta Oñati Institutoko 1. Batxilergoko ikasleek lehen saria irabazi zuten. Aizkorri-Aratz ingurune karstikoaren ezaugarrien eta kristalizazio esperimntuen emaitzen arteko uztarketa izan da aurtengo ardatza. Lan hori maketa baten bidez irudikatu dute ikasleek, zientzia, natura eta sormena elkartuz. Ikasleen arteko talde lana, konpromisoa eta sormena nabarmendu du ikastetxeak.

Gipuzkoako Hormigoi Lehiaketa irabazi dute ikastolako ikasleek

Txantxiku ikastolako DBH-4ko ikasleak izan dira COATG Gipuzkoako Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofizialak antolatutako lehen Hormigoi Lehiaketa Mundialaren irabazleak. Beraiek lortu dute erresistentzia handiena duen hormigoi lagina: 13,6 N/mm². Oñati Institutoko ikasleak bigarren sailkatu dira, 13,5 N/mm²-ko emaitzarekin.

Arkitektura teknikoa ezagutaraztea eta ikasleen artean bokazioa piztea zen lehiaketaren helburua, arlo honetan dagoen profesional faltari erantzuteko asmoz.



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariako erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.:943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala



Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Iñigo Arregi

Diseinua eta Maketazioa:

Iñigo Arregi eta Jabier Erostarbe (azala)

Kolaboratzaileak:

Roberto Altuna eta Gaztelekua (Arazerixan)

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik

Oñati garraio-salbuespena

Inazio Arregi Gordoa

Iberiar penintsula salbuespena ei da energia kontuetan; Oñati berriz garraiokoetan. Ez da izango 11.000 biztanletik gorako beste herri bat, ez Euskal Herrian ez guretik ehundaka kilometrotara ere, lurraldeko hiriburuarekin garraio bide zuzen bat ez duenik. Bakarrik ere ez, eta horrela daramagu Gipuzkoako Foru Aldundiak Lurraldebus garraio zerbitzu publikoa abian jarri zuenetik. Askoz herri txikiagoak lotuta daude Donostiarekin zebitzu kopuru esanguratsuen bidez: Eskoriatzak, esaterako, (4.241 biztanle) zazpi zerbitzu ditu lan egunetan, eta Soraluzek (3.727 b.) zortzi.

Hogei urte hauetan apenas ezer egin den udaletik, dakidanez, Elkarte Autonomoko hiriburuarekin lotura zuzenak lortzeko. Aitzitik, ahalegin guztiak Elorregiko lotunea hobetzera eta indartzera zuzenduak izan dira. Duela gutxiko eztabaida izan da Herribusak San Prudentzioraino iritsi behar duen ala ez, hiriburuetara joateko eskubidea puntu horretan hasiko balitza legez.

Iruditzen zait Oñatin bizi garenok hiriburuetara joateko, berdin hiriburuetatik gurera ikastera edo lanera etorteko, garraio bide duin bat behar dugula autoa baztertu nahi badugu, nekez erabiliko baititu gaurko aukerak denbora neurtua duenak.

Duela gutxi Urola Garaia eta Goierrri Donostiarekin lotzeko proposamena egin du Bilduk (Naiz, Apirilaren 14an), eta arazorik gabe lortu dute bi eskualdeek tren ez ere maiztasun handiko zerbitzuak izanda ere. Gurean, EAJK herria hiriburuarekin zuzenean lotzeko proposamen bat aurkeztu du postakutxetan jaso dugunez.

Bi berri hauek Oñatin bizi garenok nozitzen dugun bazterkeriarekin amaitzeko aukera esakintzen digute. Oñatiko udalean gehiengoa duen Bilduk, urrats irmoak eman beharko lituzke diskriminazio honekin amaitzeko Urola Garaiko alderdikideek erakutsitako bidetik. Garraio publikoa lehenetsi nahi dugunok eskertuko genuke.



200€-ko 19 sari eman ditu TXANDAK. Udaberriko **Oñatin erosiz Oñatik irabazi** kanpainen parte hartu duten herritarren arteko zozketa egin ostean, argazkian daude Txandako dendetan gastatzeko 200 euroko erosketa bono bana jaso duten herritarrak. Zorinak!

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

Iritzia

"JADA EZIN DA EZER ESAN"

Azken hilabeteotan herriko eragile mordoxka bat (behean sinatzen dugunak) kezka baten inguruan hausnartzen aritu gara, eta gure irakurketa partekatu nahiko genuke.

Eskuin ideologiaren gorakada betean, geroz eta ohikoagoak dira mezu zapaltzaileak sareetan, komunikabideetan... baina, baita gure herriko kaleetan eta kuadrilletan. Zenbat aldiz entzun dugu gure inguruko norbait, kexuka, "jada ezin da ezer esan..." erantzuten, politikoki zuzena ez den zerbait bota, eta norbaitek pasatu egin dela adierazten dionean? "Jada ezin da ezer esan" horren atzean ideia arrazista, matxista, kapazitistaren bat egon ohi da, gutxiengo bat zapaltzeko erabiltzen dena; gehienetan, gainera, "nire adierazpen askatasuna urratzen ari zara" bat izan ohi du segidan, edozein iritzi (komentario erasokor) balekoa dela salduz. Jarrera defentsibo hau nork bere pribilegioak ez ikusi, ez enpatizatu, eta ondokoaren aldarrikapenak ez entzuteko erabiltzen du zenbaitek; seinalatu dizkieten mugak landu beharrean bere toki pribilegiatuan tinko jarraitzeko.

Horren adibide dugu "Palomak" bideoa ekoizteko La Polla Mecanica eta Dwingi Dwingi taldekoek hartutako jarrera. Batu garen eragileok ez gaude ados pentsaera horrekin eta bideoa salatzen dugu. Balio sistema konkretu batean bizi gara: kolektibo batzuek dauzkaten pribilegioak erabiltzen dituzte beste batzuk zapaltzeko. Herri hau klasista, arrazista, matxista, xenofoboa, koloniala, islamofoboa, kapazitista eta lodifoboa da, besteak beste; eta, testuinguru honetan, ez da berdina etorkinez edo dirudunez barre egitea. Are, umorea goitik behera egitea burla da: sistemaren balioekin bat dator eta zapalkuntzak, diskriminazioak, estereotipoak eta indarkeria elikatzen ditu. Era berean, azpiratutako kolektiboak desitxuratzen ditu, deslegitimatatu eta baztertu.

Bideoan botere-joko moral modura aurkezten dute gaia, esaten dituzten eduki zapaltzaileak neutroak, zilegiak, apolitikoak direla sinestaraziz. Guk, ordea, umorearen aldeko apustua egiten dugu, beti ere behetik gora egiten bada. Ardura hartzea dagokigu eta adi egon behar dugu botere egitura zapaltzaileak irauli nahi baditugu. Hautu bat da, hautu politiko bat, zapalkuntzetan ez sakontzeko jarrera izatea, minoriek esandakoa entzutea, jarrera irekia izatea eta hausnarketarako prest egotea. Ez da "superioritate morala": norberak aukeratu dezake zein jarrera izan, zer babestu eta zeri mugak jarri. Eta ez bakarrik "Palomak" bezalako kasuetan: gure egunerokotasunean, "umorearen izenean", behekoak zapaltzeko adierazpen etengabeak entzuten ditugunean ere kritiko izatea dagokigu.

Kritika egiteari lotuta, bada LPM eta DD-koek hartutako jarreraren kezka sorrazten digun beste elementu bat: herri eragileekiko mespretxua. Izan ere, gutxiengo batekiko irainkorra zen ekoizpena egin izana adierazi zieten hainbat eragilek, autokritikarako tartea eskainiz; beraiek, ordea, "Palomak" bideo erasokorra eginez erantzun dute. Hala, herri eragileak desitxuratu, deslegitimatatu era erridikulizatzen dituzte, daukaten popularitate bozgorailua erabilita, eta diskurtsoa komeni zaien markora eramanda. Jokabide honek dimentsio arriskutsua du: herri eragileak espazio politiko antolatua dira botereari mugak jartzeko, eraldaketa sozialerako, zein salaketarako; eta, espaziook zaindu eta indartu beharrean, deslegitimatatu egiten badira aurrekari arriskutsua ezarriko dugu.

Beraz, laburbilduz: ez, ez da adierazpen askatasuna, pribilegioak erabiltzen ari zara. Ez, ez da zentsura, diskurtso zapaltzaileei mugak jartzea da. Bai, kritika eta autokritika beharrezkoak dira, ikusten ez ditugun (ikusitako ez ditugun) pribilegioak erakusten dizkigutelako, eta horiek lantzeko aukera ematen digutelako. Segi dezagun lanean.

Sinatzaileak: Aixotu, Antixenako Asanblada, Bargastak talde Feminista, Bizitzak erdigunean, Burrunda, Colectivo peruanxs en EH, EH Bildu, Ernai, Fan Hemendik, Ikama, Jarki, Oñatiko emakume Saharrak, Sortu eta Txosna Batzardea

>> OHAR ETA DEIALDIAK <<



Euskaraldiaren aldeko MUS txapelketa Arranon

Arrano elkarteko III. MUS txapelketa jokatu zen maiatzaren 17an, Euskaraldiari kiñu bat eginez. Guztira 36 bikotek parte hartu zuten eta Krespo-Riko bikotea nagusitu zen.

Oñatiko Jai Batzordean parte hartzeko deialdia

Deialdiaren helburua herriko jaiak antolatzeko bilera irekia egitea da. Udaleko kultura sailak herritar guztiak gonbidatzen ditu jaixetako egitaraua lantzen hasteko bileran parte hartzera, **ekainaren 10ean** (asteartea), kultur etxean, 18:30etan.

Haurren daborrada

Zabalik dago jada 2025eko Haurren Danborradan parte hartzeko izen emate epea. Ekainaren 10a izango da azken eguna. Tanborrada irailaren 20an izango da eta parte hartzeko baldintzak hauek dira:

- 2025-2026 ikasturtean 3. edo 4. mailan egotea.
- Jaiotze urtea 2016 edo 2017 izatea.

Danborra jotzen atera nahi dutenek formulario hau bete behar dute: <https://forms.gle/LfT3NaSD8docyfQ96>

Gastadore gisa parte hartu nahi dutenek beste hau: <https://forms.gle/s31gpzJvC8j3sL458>

Konpartsak osatzeko zozketa **ekainaren 13an** egingo da Interneteko *Sortea2* aplikazioa erabiliz. Emaitza emailaz jakinaraziko da, eta entseguak irailaren 4,8 eta 11n izango dira Eltzian (18:30-19:30)

Barrakak merkeago

Ekainaren 13an barrakak 1€-tan egongo dira; Jumping-a 2€-tan.



Gure ekintzen berri emango duen atala...

>> TXALOKA LUDOTEKAN IKASTURTE AMAIERA ETA UDALEKUEN ONGI ETORRIA <<

Txaloka ludotekak ikasturte amaierarekin atea itxiko ditu udan. Ekintzez josiriko beste urte bati itxiera ematera goaz. Ate irekietatik hasi, ekintza bereziak antolatzen jarraiki, ludoteka ibiltariak diseinatuz gero eta ostiralero-ostiralero ludotekaren atea herrira zabaltu ditugu antolatutako tailerrak eskainiz: Zirko tailerra, buru handien tailerra, gau beltza, ipuin kontalaria, txotxongilo tailerra, bitxigintza, ... eta abar luze batez bete dugu aurtengo helburua: Lagun berriak eginez gozatzea!

Hurrengo ikasturtera itxaron beharko dugu berriro ludoteka erabiltzeko, baina, lasai, jolasak eta gozamenak bizirik jarrai dezan, badatoz aurtengo Oñatiko udaleku irekiak. Haurren irri eta poz ohikoek beteko dituzte 4 astez Oñatiko kale, plaza eta auzoak.



Ludotekan egindako txotxongilo tailer bateko irudia

UDALEKU IREKIAK ETA ARTE UDALEKUA

Ekainaren 23an emango diogu hasiera hain gogotsu hartzen diren udaleku irekiei eta uztailearen 18an agurtuko ditugu udako oporraldiari hasiera emateko. Aurten, 4-12 urte bitarteko, 488 haurrek hartuko dute parte, eta, azken urteei jarraiki, Eltzia izango dute elkargune nagusi.

Goizeko 10.00tan hasi eta 13.00 arte ibiliko dira ekintza desberdinak burutuz 65 hezitzaileko lantaldearekin. Udaleku irekietan, lagun artean, euskaraz jolastuz eta irri eginez maitatzeko, gozatzeko eta libre sentitzeko aukera paregabea eskainiko da eta hori izango dugu meta. Sormena, parte-hartzea, jolasa, errespetua eta aniztasuna erdigunean jarriz egingo dugu lan.

Udalekuen inguruan informazio zehatza jasotzeko, bi guraso bilera antolatu ditugu. Lehenengoa, Ekainaren 16an 18.00tan izango da, eta bigarrena 17an ordu berdinean. Bi bilerak Eltzia hirugarren solairuan burutuko dira. Bertan, udalekuen inguruan jaso beharreko ohar garrantzitsuenak partekatuko dituzte koordinatzaileek.

Arte Udalekuetan beste 65 haur izango ditugu, eta hauen egutegi eta ordutegia Udaleku irekien berdina izango da, elkartzeko tokia ordea Gaztelekua izango da, eta aurten ere marrazkigintzan, margogintzan, eskulturgintzan edota antzerkigintzan disfrutatzeko aukera paregabea izango dute. Guraso bilerarik egingo ez bada ere, edozein komunikazioa gazteria.oinati@gmail.com emailetik egingo zaizue.

Gu ere hasteko irrikan gaude!

► **4-12 urte arteko 488 haurrek parte hartuko dute udaleku irekietan, eta 65 haurrek arte udalekuetan**

► **Udaleku irekiei buruzko informazio zehatza emateko gurasoei zuzendutako bi bilera antolatu dira: ekainaren 16an (18:00) eta 17an (18:00), Eltzia 3. solairuan**

► **Sormena, parte-hartzea, jolasa, errespetua eta aniztasuna erdigunean hartuta egingo dute lan udalekuetan**

AGENDA, GAZTELEKUKO EKINTZAK

- **Ekainaren 6 eta 7an**, escape-room Gazteleku osoan
- **Ekainaren 7an**, Kuboko Eskalada saioa
- **Ekainaren 17, 18 eta 19an**, Kuboko II. Aste Olinpikoa
- **Ekainaren 20an**, 'Trapu Zaharrak' taldearen kale-antzerkia, Gaztelekuko sarreran
- **Ekainak 28 edo 29**, LH-6koen eguna

Aprobetxatu uda C1 titulua eskuratzeko

HABEren iraileko deialdirako prestatzeko ikastaroa antolatu du udal euskaltegiak

ZERTARAKO C1 TITULUA

Gaur egunean Euskal Herrian administrazio lanpostu bat lortzeko maila bateko edo besteko euskara-gaitasuna egiaztatzea eskatzen da, besteak beste, irakaskuntzan, Osakidetzan, Ertzantzian. Administrazioetik kanpoko lanpostu askotan ere, derrigorrezkoa ez bada ere, eskatu edo balioesten da. Beraz, C1 mailako tituluak balio funtzional handia du gure gizartean lanpostu bat eskuratzeari begira.

IRAILEKO DEIALDIA

Eusko Jaurlaritzako HABE erakundeak ikasturtean zehar euskaltegi batean ikasten duten ikasleentzat bi deialdi prestatzen ditu — deialdi itxiak deitzen zaienak —, bata maiatzean eta bestea irailean. Ikastaro honetan HABEko iraileko deialdira joateko prestatuko da ikaslea.



Euskaltegiko irakasle taldea Eltzian, behin-behineko egoitzaren atarian

IKASTAROA

- EKAINAK 23-UZTAILAK 18
- ASTELEHENETIK OSTIRALERA 8:30-13:00
- PREZIOA: 129,30€ (Langabezian egon eta subsidiarik jasotzen ez dutenentzat, dohainik; jasotzen dutenek matrikula hobaritua izango dute).

MATRIKULA EPEA

- EKAINAK 2-17, udal euskaltegian (ELTZIA, Larraña auzoa, 16 / 943 78 24 96).
- Gehienez 10 laguneko taldea osatuko da, eta izen-ematearen hurrenkeran onartuko dira.



Udako



C1 mailako ikastaroa goizetan
ekainaren 23tik uztailaren 18ra

Matrikula epea: ekainaren 2tik 17ra,
udal euskaltegian.

ELTZIA, Larraña auzoa, 16 (943 78 24 96)

Zatoz!



HERRIKO FUTBOL TXAPELKETA

Shatoken Moüra txapeldun

> Iturritxo nagusi Kopa txapelketan

Maiatzaren 10ean jokatu ziren beteranoen HFTko finalak, ligakoa eta kopakoa. *Txanpions*-ekoan **Shatoken Moüra** nagusitu zen (5-2) **Weingüter**-en aurka. Martxel Aiaituik jaso zuen finaleko jokalaria onenaren saria. Kopako finala **Iturritxo taberna** taldeak eraman zuen (2-0), **Morekanbe**-ren aurka. Miguel Soaresentzat izan zen jokalaria onenaren saria.

Denboraldi osoko sariei dagokienez, golegile onenaren 'Bere' saria **Irizarrek** (Shatoken), atezain onenarena **Txan**'ek (Shatoken) eta jokalaria beteranoenarena **Asti**'k (Shatoken) jaso zuten. **Josu Cambesek** ere orogarri berezia jaso zuen txapelketa osoan zehar epaile lanetan aritu izana eskertzeko.



SHATOKEN MOÜRA, Liga txapelduna



ITURRITXO TABERNA, Kopa txapelduna



Golegile onena 'BERE' saria:
Irizar (Shatoken)



Atezain onena: Txan (Shatoken)



Beteranoena: Asti (Shatoken)



Txapelketako epailea: Josu



Senior neskak, Euskal Ligara, eta kadeteak Kopa txapeldun

ESKUBALOA. Igoerako bi *play off* irabazita, Ugarte Eraikuntzak-Aloña Mendi taldeak Euskal Ligan jokatzeko txartela eskuratu du, denboraldi ederra borobilduz. Gasteizen jokatu zen *play off* erabakiorrean, etxeko taldeari (Eharialedea) 28-23 irabazi eta Basauriren aurka 19na berdinduta lortu zuten igoera. Bestalde, Kadete mailako Cartonajes Arregi-Aloña Mendi taldeak Gipuzkoako Kopa irabazi du finalean Urola taldea 31-25 menderatuta. Zorionak guztiei!



Jubenil eta kadeteak Ohorezko mailara

FUTBOLA. Gazte eta Kadete mailako mutilen futbol taldeek denboraldi bikaina egin dute eta biek ala biek Ohorezko mailan jokatzeko txartela eskuratu dute. Bestalde, senior mailako nesken Debagoiena taldea ere Ohorezko Erregional mailara igo da. Zorionak bertan diharduten jokalaria eta entrenatzaile oñatiarrei





Partiduaren amaieran, jokariak senide eta zaletuekin

Ezin borobildu denboraldi bikaina

ARETO FUTBOLA Liga erregularrean txapeldun amaitu ostean, Euskal Ligara igotzeko *play off*-ean 2-4 galdu zuen Coinbroker-Aloña Mendik Tolosako Herrikide-ren aurka, bertako Usabal kiroldegian jokaturako finalean. Oñatiarrek hatz puntekin ukitu zuten igoera, 2-0 aurreratu baitziren, baina lehen zatia amaitu aurretik murriztu zuten aldea tolosarrek, eta bigarren zatia hasi orduko berdindu. Hortik aurrera, oso parekatuta joan zen norgehiagoka, baina, tamalez, azken minutuan aurreratu ziren tolosarrak, eta azken segundoetan, Aloñakoak etsi-etsian berdinketaren bila jo zuten eta atezain barik ari zirela iritsi zen tolosarren laugarrena. Zorionak, hala ere, Aloñari, egindako denboraldi bikainagatik.

Torreazoko lasterketa, ekainaren 29an

www.herrikrosa.eus-en eman behar da izena.
Dagoeneko dortsalen erdiak hartuta daude.

San Pedro egunez jokatu da aurten 26. Torreazoko krosa, ohiko ibilbidean, Etxe Aunditik Olaterainoko joan-etorria (7,5km). Izen-ematea proba egunera arte edo dortsalak agortu arte mantenduko da zabalik —iaz lau egun lehenago itxi behar izan zen—. Lasterketan 16 urtetik gorako edonork parte har dezake eta www.herrikrosa.eus atarian eman behar da izena, 10€ ordainduta, ekainaren 27ko 22:00ak arte; hortik aurrera 18€, ekainaren 29ko 9:00ak arte.

Iaz 299 lagunek parte hartu zuten, horietatik 98 emakumeak. Datu hau azpimarratu nahi izan dugu, horixe batita 2016az geroztik lasterketa antolatzen duen Abixaran taldearen helburuetako bat: emakumeen partaidetza sustatzea. Eta urtetik urtera gehiago dira. Ea aurten 100eko langa gaintzen duten.


Kirolaren balio integratzailea ere aldarrikatzen da Torreazon, eta horren erakusgarri da mugikortasun mugatua duten pertsonen partaidetza. Aurtengorako ere jada izena emana dute Joillet aulkian parte hartuko duten bost gaztetxok eta laguntzaile taldek.



Emakume taldea helmugaratzen iazko ekitaldian (Argk.: Abixaran)

Bestalde, urtero legez, taldeka izena ematera animatu nahi dira korrikariak. Nahikoa dira 3 lagun taldea osatzeko, eta izena ematerakoan taldearen izena adierazi behar dute. Ez dute zertan lasterketa elkarrekin egin behar. Gogoratu, hori bai, amaieran taldeen arteko opari zozketa ere egiten dela.

Lasterketa goizeko 10:30etan hasiko da eta amaieran, ohi bezala, luntxa eta opari zozketa egingo da, sari banaketarekin batera. Antolatzaileek bereziki eskertu nahi dute Oñatiko dendari eta ostalariek egiten duten ekarpena, zozkatzen diren opari asko beraiek doan emandakoak baitira.




COINBROKER
OÑATI ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

📍 ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA

☎ 943 089 006 📞 688 774 531 - WHATSAPP

✉ OINATI@COINBROKER.EUS





Aloña Mendiko Txirrindulariak oso maila onean

Maiatzean oso emaitza onak lortu dituzte gure txirrindulariek. Hala, junior mailako Ulma-Aloña Mendi taldeko **Mario Elizburuk** denboraldiko lehen garaipena lortu zuen Astigarragan.

Azpimarratzekoa baita ere, kadete mailako Euskadiko txapelketan, Ulma-Aloña Mendiko **Aitor Murguzurrek** lortutako bigarren postua, irabazlearen denbora berean. Aste pare bat lehenago 2. sailkatu zen Seguran, mendiko saria irabazita. Bestalde, bere taldekide **Oihan Irizar** ere podiumera igo zen, 3. postuan, Muskizen.

Gaztetxoaren artean, Infantil mailan, nabarmentzekoa Bizipoz-Aloña Mendi taldeko **Luken Olalde** lortutako garaipena, eta Irunen lortutako 3. postua. Karrera honetan, baina alebin mailan, **Ganix Martin** ere 3. helmugaratu zen. Bestalde, taldekako Gipuzkoako erlojupeko txapelketan 3. sailkatu ziren alebin mailako nesken eta mutilen taldeak.

'ZAZPI', KONTAKIZUN BAT, TONTORREZ TONTOR Mikel Lizarralderen dokumentala



2024ko Mendifilm festibalean euskarazko film onenaren saria

IKUS-ENTZUNEZKOA Oñatiko Mendi Martxaren X. urteurrenaren harira antolatu dituzten ekitaldiekin jarraituz, **ekainaren 12an** (kultur etxean, 19:00) Mikel Lizarralderen 'ZAZPI' dokumentala ikusteko aukera izango dugu. Esklerosi anizkoitza diagnostikatu ziotenetik egindako bidea kontatzen du Lizarraldek, Euskal Herriko lurralde bakoitzeko mendi garaienak lotzeko zeharkaldia oinarrian dela. Oñatin izango da Mikel bera.

OTZAUURTE-AITZGORRI-ARANTZAZU

MENDI IRTEERA Aloña Mendik ekainerako antolatu duen irteera etxe inguruan izango da, **hilaren 15ean**. Aizkorrira joango dira, baina Otzaurtetik abiatu eta San Adriango kobatik igarota. Ibilbide luzea eta gogorra (19,5km / +1.050m), 6-7 ordu ingurutan egitekoa. Irteera, goizeko 7etan postetxe parean. Izena ematea (10€), ekainaren 5etik 12ra, alonamendi.mendi@gmail.com helbidean, autobusa bete arte (50 leku).




Zegama-Aizkorriko podiumean berriz ere Malen Osa

Bitik bi. Salomon taldeko Malen Osa korrikalari oñatiarra Zegamako podiumera igo da aurten ere. Iaz bigarren sailkatu zen, eta aurten hirugarren, Sara Alonso (4:27:25) eta Judith Wyder (4:29:47) suitzarraren atzetik, baina iazko denbora lau minututan hobetuz (4:31:18). Oso-oso pozik zegoela adierazi zuen Osak, azken hilabetean osasun arazoekin ibili delako, eta lasterketan bertan ere karranpak nozitu zituelako. Baina ez zuen etsi oñatiarrak, eta merezitako saria jaso zuen. Azpimarratzekoa, baita ere, Xabi Letek egindako lana (4:29:11), 52. postuan, Udalatxeko lasterketan belaunean hartutako kolpe baten ondorioz azken asteetan ia mendira joan ezinik egon ostean.



LUMINISCENCE

Bideo mapping-a, historia eta musika uztartzen dituen esperientzia ikusgarrian parte hartuko du **Ganbara abesbatzak**



Paris, Bordele, Lyon edo Niza bezalako hirietako katedral eta eliza ikusgarrienetatik igaro eta milioi erditik gora ikusle liluratu ostean, *Luminiscence* ikuskizuna Espainiara iritsi da eta Donostiako Artzai Onaren Katedralean izango du lehen geltokia.

Argi efektuak, historia, musika eta teknologia uztartzen dituen 360°-ko esperientzia sensorial murgiltzailea da

Luminiscence. Bideo-mapping proiektzioak site specific dira, hau da, tenpluaren 3D azterketa-teknologiari esker, katedraleko zoko bakoitzari egokitzen zaizkio. Proiektzio bakoitza zutabe eta hormetara moldatzen da, erabateko murgiltze efektua sortuz.

Beste hainbeste esan daiteke soinuari dagokionez. Publikoa inguratzen duen bozgorailu sistemari esker, nota,

< **Europa osoan milioi erdi ikusle baino gehiago liluratu dituen ikuskizuna Donostiako Artzai Onaren Katedralera iritsiko da**

< **Emanaldi batzuetan zuzeneko musika egongo da. Oñatiko Ganbara abesbatzak egun hauetan abestuko du: ekainak 20 eta 21, uztailak 3, 5, 10, 12 eta 18, eta abuztuak 21, 22 eta 23.**



Sarrerak eskuragai ondorengo QRan

ahots eta perkusio bakoitzak eraikinean zehar bidaiatzen du, aurrekaririk gabeko soinu-murgiltze esperientzia eskainiz. Eroso eserita dagoen publikoak ez du soilik entzuten; fisikoki bibrazioak sentitzen ditu eta ñabardura bakoitza aparteko argitasunez hautematen du. Erabateko soinu-murgiltze horrek zentzumen-esperientzia paregabe bihurtzen du entzutea.

GANBARA ABESBATZA

Luminiscence ikuskizunaren emanaldietako batzuetan zuzeneko musika entzuteko aukera egongo da, eta, zehazki, Oñatiko Ganbara Abesbatzak 10 emanalditan parte hartuko du, ahotsa jarriz: ekainak 20 eta 21; uztailak 3, 5, 10, 12 eta 18; eta abuztuak 21, 22 eta 23. Gainerako emanaldietan musika digitala izango da

Luminiscence ikuskizuna (50') lau ekitalditan banatuta dago, eta hiriaren nahiz katedralaren historian barrena bidaiatzen du. Helburua, azken batean, Belle Epoque garaian eraikitako altxor neogotikoari omenaldia egitea da, bere arkitektura berpiztuz musika nota bakoitzarekin, eta argi mugimendu bakoitzarekin. Arteak eta teknologia bat egiten dute ondare arkitektonikoa goratzeko.

Abuztura arte egongo da *Luminiscence* ikuskizunaz gozatzeko aukera Donostiako Artzai Onaren Katedrallean, eta sarrerak salgai daude jada. Informazioa eta sarrerak: <https://luminiscence.com/san-sebastian-helbidean>.

ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI


Mekalki
S. Coop. **mekanizatuak**

Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es

Pop-rock doinuak musika bandaren denboraldiko azken kontzertuan

> Aloña Mendiko gimnastek eta hainbat musikaririk (Arantzazu Saiz, Iratxe Urzelai eta Iker Martinez de Zuazo) parte hartuko dute ikuskizunean, **ekainaren 8an**



'Mugitu POP-ROCKarekin' izenburupean, denboraldiko azken kontzertua eskainiko du musika bandak ekainaren 8an (Zubikoa pilotalekuan, 13:00). Ondoko egitarauan ikus daitekeen moduan, pop eta rock talde ezagunen (ETS, Elvis, Deep Purple, ABBA, Queen...) abesti eta doinu askoren moldaketak joko ditu musika bandak, Aitor Biain-Bidarteren zuzendaritzapean.

GONBIDATU BEREZIAK

Musika estilo hauen zentzua mugimendua denez, Aloña Mendiko **Gimnasia Erritmikako ikasleek** ere parte hartuko dute, koreografia ikusgarriekin. Eta hiru musikariren laguntza ere izango du bandak: **Arantzazu Sainz** (piano-jolea), **Iratxe Urzelai** (baxu elektrikoa / **Sukena**) eta **Iker Martinez de Zuazo** (gitarra elektrikoa). Denboraldiari amaiera borobila emateko kontzertua, zalantza barik. Emanaldia dohainik izango da, ohi bezala, baina txartela eskuratu behar da Txokolateixan.



EGITARAUA

- **ROCK CLASSICS** /
Mold.: P. Schüller
- **AUKERA BERRIAK** (ETS)
Mold.: J. López
- **POP ESPAÑOL EN CONCIERTO**
Mold.: M. Castrejón Navarro
- **A TRIBUTE TO ELVIS** /
(Mold.: J. Brubaker
- **DEEP PURPLE MEEDLEY** /
Mold.: T. Sahashi
- **MAMMA MIA!** /
Mold.: P. Klaine Schaars
- **BOHEMIAN RHAPSODY** /
Mold.: P. Sparke

◀ 25 URTE MUSIKA BANDAN

Ohikoa izaten da oroigarri bat ematea musika bandan 25 urte betetzen dituzten kideei, beraien dedikazioa eta konpromisoa aitortu eta eskertzeko. 2024an lau kidek (Aitor Biain, Jon Mendiola, Ion Astigarraga eta Amaia Biain) bete zuten mende laurdena bandan, eta aurten, apirileko kontzertuan, jaso zuten ondo merezitako oroigarria.

KANTU ESKOLA KANTARI

EKAINAK 8 /
SANTA ANA 19:00



'Udak Kantu Eskola Kantari' izenburupean, Ganbara Faktoriako talde guztiek –*Ganbara Txiki, Hasi-berriak* eta *Ikastetxeak Kantari*–, 70 bat haur guztira, kontzertua eskainiko dute, azken hiruhilabete honetan egindako lanaren emaitza erakutsiz, Aitor Biain eta Aitor Garitano-ren zuzendaritzapean. Piano-jole lanetan Rakel Murgiondo arituko da.

Santa Ana antzokian (19:00) izango da emanaldia. Sarrerak (5€) Txokolateixan eta www.oñati.eus atarian eskuratu ahal izango dira.




Oñabike


oñabike.com

Otadui 25, Oñati · Tel.: 943 78 05 65

BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL EKIPAZIOAK

Arrikruzeko koban eskainiko du Ganbara abesbatzak aurtengo 'Udako Gauak' kontzertua

- > Ekainaren 27an (22:00) izango da emanaldia.
- > 100 lagunentzako tokia egongo da soilik



◀ Emanaldia dohainik izango da, baina gonbidapena eskuratu beharko da Txokolateixan

Entzule desberdinetara iritsi eta abesbatza musika balioan jartzeko asmoz, herriko txoko ezberdinetan eskaini ohi du Ganbara abesbatzak 'Udako Gauak' emanaldia urtero, eta aurtengoa Arrikruzeko koban izango da, ekainaren 27an, 'BIZITZAREN KATEDRALA' izenburupean, Aitor Biain-Bidartek zuzendua.

Emanaldirako propio sortutako obra bat estreinatuko dute bertan, eta abesbatzaz gain aktore bat (Danel Teran) ere izango da oholtza gainean. Horrela, entzuleek euskal musika eta Arrikruzeko historiaz gozatzeko aukera izango dute.

'Bizitzaren katedrala' du izenburua emanaldi honetarako propio enkargatu den obra, eta Eva Ugalde donostiarrak konposatu du, Josu Zubiaren testuekin. Haitzuloaren sorrera eta bertako bizitza deskribatzen duen *suite* bat da, eta lau zati ditu: **1. Taupa eta indar** (koru mistoa eta pianoa); **2. Tantz tanta** (ahots zuriak eta pianoa); **3. Babes nazan** (koru mistoa eta pianoa); **4. Bizitzaren lorratza** (koru mistoa, ahots zuriak eta pianoa). Amaia Zipitria izango da piano-jolea

Kontzertu ibiltaria izango da, eta kobazuloaren kanpo nahiz barrualdean musikaz gozatzeko aukera izango dute entzuleek. Ehun lagunentzako tokia egongo da bakarrik.



HOTS ABESBATZA GASTEIZKO LEHIAKETAN

Irailean *Debrecen* hirian (Hungaria) egingo den nazioarteko lehiaketarako prestaketa modura, ekainaren 7an Gasteizen izango den II. Abesbatza lehiaketan parte hartuko du Aitor Biain-Bidartek gidatzen duen Hots Abesbatzak.

Oñatiarrek honako programa abestuko du: *Goizian argi hastian* (Mold.: Melody-Ky), *Tota pulchra est* (M. Duruflé), *Psalm 23* (F. Schubert), *Gaur akelarre* (L. Aranburu), *O sapientia* (V. Tadeja) eta *Oihu hau* (D. Azurza). Egun 40 emakumez osatutako taldea da **Hots**, eta 6 hilabete daramate lanean, ilusio handiz, lehiaketa prestatzen.

 **MODA BEREZIA**
Kale Barria, 12
Tel. Faxes: 943 71 62 40

CORTABARRIA
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA
Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Haziendarekin
- Informazioa
- Trafikorekin
- Salmenta
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es



Haurren Irakurketa Kluben topaketa egin dute Zarautzen

Oñatiko HIKean 14 hurrek parte hartu dute

Aurten Haurren Irakurketa Kluba (HIK) jarri dute abian udal liburutegian. Peru Magdalena idazleak gidatuta, LH4 eta LH5 mailako hamalau neska-mutikok parte hartu dute ikasturtean zehar. Beste herri batzuetan ere horrelako klubak daudenez, haur guzti hauek elkarrekin harremanetan jartzea pentsatu dute. Horretarako, aurrena etxeko helbideak trukatu zituzten eta beraien artean eskutitzak idazten aritu dira. Baina gauza ez da hor geratu, eta ekainaren 1ean topaketa egin zuten Zarautzen, elkar ezagutzeko. Irakurketarekin lotutako topaketa bat izan zen, ekimen berritzailea guk dakigula.

Egun osoko jarduna izan zuten Zarautzen. Goiz partean **Ezagutza jolasak** (Bingoa, gutun trukearen kidea topatzeko; azitia, iratxoa, erraldoia; bakoitzak bere koadernoak sortu...), eta **tailerrak** (ahozko kontakizuna kartekin; poesia tailerra; ipuin kontaketa) izan zituzten. Eta bazkalostean denbora librekoa hondartzan ibiltzeko eta, azkenik, Quiz taldeka (marrazketa, tabu, galderak, mimika) eta Altxorraren bila. Egun pasa ederra, bistan denez.



Oñatiko HIK-eko neska-mutkoak Peru Magdalena idazlearekin

EHUko Udako Ikastaroak Arantzazun

EHUko Udako Ikastaroak Arantzazura itzuliko dira aurten, eta Arantzazulab-ekin elkarlanean 'Demokraziaren berrikuntza: zein izan daiteke gure ekarpena? Nazioarteko begirada eta kontrastea' izenburua duen ikastaroa emango da Gandiaga Topagunean, ekainaren 25ean. Gaur egun demokraziak dituen erronkei buruzko gogoeta partekatzea da helburua, nazioarteko eta tokiko adituen eskutik. Informazioa: www.uik/eus

Udako Biblioporrak Gida laster banatuko dute etxe guztietara

Ekaineko bigarren hamabostaldian banatuko da herriko etxe guztietara Debagoieneko udal liburutegiek, Aramaio eta Legazpikoarekin batera, prestatu duten udako Biblioporrak gida. Ohi bezala, adinka sailkatutako liburu, film eta disko gomendagarriak aurkituko ditugu bertan. Udan denbora libre gehiago izaten dugunez, amets egiten, informatzen eta kulturalki aberasten jarraitzen animatu nahi gaituzte liburutegiko arduradunek. Udal liburutegian eskuratu ahal izango ditugu bertan agertzen diren dokumentu guztiak, eta gida bera ere bai, jakina.



Ate irekiak artxibo historikoetan ekainaren 9tik 12ra

Artxiboen Nazioarteko Astea ospatzeko eta 'Ipuskoa. Izanetik izena. 1025/2025' ekitaldiaren baitan, bisita gidatuak egingo dira Foru Aldundiko artxibo historikoetan: ekainaren 9eta 10ean **Oñatin** (Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoan) eta ekainaren 11 eta 12an **Tolosan** (Gipuzkoako Artxibo Orokorrean). Artxiboen egunerokoa nolakoa den erakustea da helburua, artxiboak herritar ororentzat erabilgarri daudela erakusteko.

Oñatiko artxiboari dagokionez hiruna bisita gidatu egingo dira **ekainaren 9 eta 10ean**: goizez bi (10:00 eta 12:00) eta arratsaldez bat (16:00). Euskarazko eta gaztelaniazko taldeak bereziko dira. Ezinbestekoa da aurrez erreserba egitea: 943 415 060 edo ahpg-gpah@gipuzkoa.eus.



Bisita gidatua Arantzazuko kriptara, ekainaren 14an

'Ezagutu Arantzazu' proiektuaren baitan, 'Arantzazuko Santutegiko kriptak ezkutua' izenburua duen bisita gidatua egingo da ekainaren 14an, Arantzazuko Adiskideek Debagoieneko Turismo informazio zentroarekin batera.

Geografia eta Historian (EHU) doktore eta Museoen Arte Galerien kudeaketan masterra

duen Isabel Monfortek gidatuko du bisita. Tunisian bizi den emakume honek 'Arantzazu, arquitectura para una vanguardia' liburua idatzi zuen, eta berak gerturatuko gaitu Nestor Basterretxeak kriptan egindako margolanei. Prezioa, 5€ (bazkideak doan). Izena emateko: adiskideak@arantzazu.org / 688 613 840.





Oñati Abesbatzako kideak

Oñati eta Ciudad de Caspe abesbatzen KONTZERTUA

Ekainaren 7an abestuko dute Agustindarren elizan (18:15)


Oñati Abesbatzak Zaragozako Caspe herriko 'Ciudad de Caspe' taldearekin egiten ari da aurtengo abesbatza-trukea. Maiatzaren 31n, Caspen eman zuten elkarren arteko lehen kontzertua, XIII Encuentros Corales jardunaldien baitan.

Itzulera emanaldia Oñatin izango da, ekainaren 7an, Agustindarren elizan (18:15). Javier Garcések zuzenduko du Caspeko

abesbatza, eta Mirengu Plazaolak, ohi bezala, Oñatiko, honako programarekin: *Cantate Domino, Amor de mi alma, A tu lado, S'ha feito de nuey, Maiteak galde egin zautan* eta *Arratsalde honetan*.

Emanaldia borobiltzeko, bi koruek elkarrekin abestuko dituzte Jose Antonio Labordetaren *Canto a la libertad*, eta Mikel Laboaren *Txoria txori*, abesbatzentzat egokitutakoak.

'Txistegia' liburua plazaratu du Jabi Bujandak



'Txebi' liburua aurkezten Antixena gaztetxean

Hitz-jokoak eta txistek betidanik izan ditu gustuko Jabi 'Txebi' Bujandak, baina Joseba Sarrionandiaren *Markos Gimenezoren 101 letrakartel* liburua irakurri ostean — Ermuako idazlearen sormena eta, batez ere, hizkuntzaren zentzu ludikoan egindako lana balioan jartzen ditu Sarrik—, buruak klik bat egin ziola aitortu du oñatiarrak, eta bere hitz propioak koaderno batean jasotzen hasi zela.

Ehunka hitz batu zituen denbora gutxian. Lagun batzuekin partekatu eta, hauek animatuta, horietako 245 aukeratu eta *Txistegia* liburua osatu du, hiztegi eran, atzekoz aurrera, Ander Lizarraldeko ekoitzia, eta Iñigo Biainek maketatua.

Pertsonaia historikoak, gaueko mundua, Euskal Herria, Oñatiko auzoak eta beste hainbat gairekin lotutako hitzak sortu ditu Txebik, eta bakoitza bere definizio partikularrarekin osatu. Barrea egitea sana dela dio Bujandak, eta geuk ere fede eman dezakegu, barre egingo duzuela liburua irakurtzean. Merezki du. Arrano tabernan eta Altuna estankotan eskura daiteke 10 eurotan.



'BAKARKA BI' diskoko kantak abestuko ditu Ruper Ordorikak

lazko udaberrian plazaratu zuen 'Bakarka bi' diskoan jasotako abesti ederrez gozatzeko aukera izango dugu Ruper Ordorikak ekainaren 20an (Santa Ana antzokia, 20:00) eskainiko duen kontzertuan, Korpus jai egitarauaren baitan.

2018an grabatu zuen Ruperrek 'Bakarka' diskoa, bere ibilbideko kanta adierazgarrienetako batzuk, hamabi, grabatuta, bere ahotsa soil-soilik gitarraz lagunduta, giro intimoagoa sortuz.

Eta iaz urrats berria eman zuen bide minimalista horretan, bere erreperitorio zabaleko beste hamabi kanta aukeratu eta grabatuta, kantaren esentzia biluztea ahalbidetzen dion formatu honetan.

Erruduna, Alberto Caeiroren bisita, Zaldiak negarrez, Artista baten istorioa, Mila gau, Zaindu maite duzun hori, eta Haize goxoarena dira entzungo diren abestietako batzuk. Kanta berri bat ere jaso zuen *Bakarka Bi* diskoan, Daniel Johnstonen *Artista baten istorioa* abestiaren bertsioa, hain zuzen ere

Bakarka grabatutako bi diskoak bere anaia Jonan zenarekin grabatu, nahastu eta masterizatu zituen Azkarateko Mamia estudioan.

Sarrera gutxi batzuk baino ez dira gelditzen salgai www.oñati.eus webgunean, 10 eurotan.

(*) Itten: arrastua, pistia

ITTEN BAT

>> LITERATURA TXATALAK (IV)

BASERRIXA



Uribarri auzoko *Baltzategi* baserrixa; bista osua ezkerrekaldian eta ateeta dana eskumakaldian. (Argazkixak: R. Altuna)

✍ ROBERTO ALTUNA

Gorordopeko zelaitxo baten, ira-meta haundi batzuen hurrian, soro eder aberatsaz inguratuta, bene-benetako patxaran eguen *Zabaleta* baserrixa. Bere albuetan, amari gonetatik eusten dagozen umetxuak moduan, etxe nagusixari lotuta, bestetxo bi agiri ziran: bata ogi edo artua erretetako labia, bestia ganadu-janak gordeteko lekua; eta honeittatik ez urrin, zerbait mendi aldera eta beregain, neguan ardixak eukiteteo eillorra. Etxe nagusixaren aurrekaldetik, sarrerako ate gaiñian, lore eta usain gozoko bedarrez eginddako bi sorta lihor ikusi nittuan, ohittura zaharrari jarraituaz San Juan goizian ifiñitakuak, esan nostaiñez; atiaren erdi-erdixan erantsitta, argizarizko kurtze txiki zapal bat, etxekuen kristautasuna erakutsi guran.

Leku harein barruan zer eguen jakin biharrik badago? Baserritakuak badakixe, baiña ez itsas aldekuak: ezta, ba, hain gaizki etorriko honeinddako hemen zerbait ifinttia.

Labe aldian etzan gauza haundirik: abar batzuk, ixixa erdi-erretetako pala zatar bi, eta labe-ohia garbiketako ipiskixa. Ganadu-janen etxian, lastua eta bedar igar ugari, sapaixan; atxur, eskoba, sarda, urkilla, bolda, belaki, besabe, burdi, burtesi, orrazi, galga, eta uztarrixak lur gaiñian. Etxe nagusixan, sartu eta berihela, sukaldia, patxarazkua, euskal baserri danen modukua, etxebizitzarako eta lur langintzarako bihar ziran tresnaz beteta. Bertan egozen, su aurrian, zimitzezko jarleku apalak eta keiak eta urtiak leundu euen txiselu galanta, eta apaletan, suilla, murkua eta beste urontzi batzuk, lurrezko txalin zabalak, erretillu haundi sakonak, zurezko koillara baltzittuak, eta ogi, tremes edo artua eukiteteo otzaratzua; hantxe topaitten ziran, hormetatik behera esegitta, eltze, tupin, plater, talo-burdiña, burduntzi, burruntzali, danbolin eta kriseilluak; hantxe, bazter baten, beste atxur, laixa, hozbiko, sega eta iritixak, su-egur, azpantar, abarka-eta, soka zaharren laguntasunian; eta hantxe egon ohi ziran askotan tximinixa azpian, lurruntzu, gelaatzutik behera txintxiliz, zeziñiaren itxuran, baserri haretakuen azkiñeko busti eta lokatzaiaz zikindutakuak.

Txomin Agirrereren 'Garoa' nobelako pasartia, moldautakua.

ZURICH

M^o del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LENOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...

DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA
SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHAGO

OLAKUA 12 B 4 esk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

Berbategixa:

- **Beregain, ña** = libria, independientia, autonomia.
- **Sorta, ia** = eskukadia.
- **Kurtze txiki zapal bat** = kurtze txiki mehetxo bat
- **Ira-meta, -ia** = garo-metia, suatza.
- **Urkillia, -ia** = puntan urkillia (*horquilla*) dakon makillia, bedarrari bueltia emuteko ebaltzen dana.
- **Belaki, -xa** = 1. esponjia. 2. Ionazko oixala.
- **Besabe, -ia** = arbolaren adar oker eta sendua, batez be, paguarena.
- **Burdi, -xa** = gurdia (*carro, carreta*).
- **Burtesi, -xa** = burdixaren kaja, lehenguak hurritz makilakuak ziran.
- **Bolda, -ia** = goldea (*arado*).
- **Bedar igar, -ra** = belar iharra (*heno*).
- **Sapai, -xa** = kamaria (lastategia, belartegia). *Pajar, granero*.
- **Sarda, -ia** = sardea (*horca, tridente*).
- **(e)illor, -ra** = jeneralian basuan daguen itxabolia bedarra eta iria gordeteko.
- **Argizari, -xa** = *cera*.
- **Labe, ia** = *horno*
- **Labe-ohe, -ia** = labiaren zorua edo behia.
- **Ganadu-jan, -a** = ganaduari emuten xakon jana, normalian, bedarra.
- **Lasto, ua** = *paja*.
- **Ipiski, -xa** = isuskixa, illarrezko eskobia (*escoba de brezo*).
- **Galga, -ia** = frenua.
- **Uztarri, xa** = *yugo*.
- **Lur langintza, ia** = *agricultura (cultivo de la tierra)*.
- **Zumitz, -a** = *fleje*.
- **Txiselu, -a** = sukaldeko banku luzia eta fijua.
- **Suil, -la** = *herrada, tina, cántaro*.
- **Murko, -ua** = *botijo*.
- **Urontzi, xa** = *recipiente de agua; cantimplora*.
- **Txalin, -ña** = aixkomete egurrezko plater txikiña.
- **Erretillu, -a** = plater haundixa (*bandeja, fuente*)
- **Zurezko koillara, -ia** = egurrezko kutxaria (*cuchara de palo*)
- **Baltzitu, -a** = belztua (*ennegrecido, -a*)
- **Tremes, -a** = arto-uruna, gari-uruna (galuruna) eta azkarrixarekin egitten zan ogixa.
- **Otzara, -ia** = otarrea (*cesto, -a*).
- **Eltze, ia** = lapikoa (*cazuela*).
- **Tupin, -ña** = bi eskuleku dakon lurrezko ontzi ipurdi zabala.
- **Talo-burdiña, -ia** = talo-palia, hau da, talua erretetako palia.
- **Burduntzi, -xa** = *asador*.
- **Burruntzali, -xa** = *cazo*.



Ipiskixa edo isuskixa



Txiselua



Urkillia



Burduntzalixa



Bedar-metia edo suatza



Suilla

► BASERRIXA LANGAI

Itten ataleko artikulu hau osoketako, Donostiako San Telmo museuak baserriko tresnen inguruan egindako lan interesgarria aurkezten dutsuegu. Hainbat ariketa egitteko bi bersiño dituen lan bat biribildu dau: batetik, ikasliarena galderakin eta, bestetik, irakasliarena erantzunakin. Ondoko QR-en bidez ikusi ahal izango dituzue bata zein bestia.



Ikasliaren
gida



Irakasliaren
gida

AGENDA

BIDAIAK

EKAINAK 12-13

'Kultura eta natura-2025'

Pake Lekuk antolatuta: Burgos, Lerma, Silos, Covarrubias Burgos.

BISITA GIDATUAK

EKAINAK 9-10

Oñatiko Artxibo historikoan ate irekiak

Egunero hiru bisita: 10:00, 12:00 eta 16:00. Erreserba egiteko: 943 41 50 60.

EKAINAK 14 / 10:30

Arantzazuko santutegiko kriptak ezkutua

Isabel Monforte historia eta arte adituak gidatuta (5€). Izen-ematea: 688 613 840 / adiskideak@arantzazu.org.

DOKUMENTALA

EKAINAK 12 / 19:00

'Zazpi. Kontakizun bat tontorrez tontor'

Esklerosi anizkoitza duen Mikel Lizarralderern ikus-entzunezkoa. [Zine aretoan](#)

EKITALDI BEREZIAK

EKAINAK 12 / 17:00

Bingo berezia

Pake Lekuk antolatuta [Pake Lekun](#)

EKAINAK 14 / Egun osoan

Eltzia eguna

Triki-berto-poteoa (12:00), bazkaria (14:30), erromeria (18:00) eta DJ saioa [Eltzia](#)

EKAINAK 14 / Egun osoan

Fan Hemendik eguna

Karro-poteoa (12:30), bazkaria (14:30), manifestazioa (19:00), kontzertuak (21:00)

EKAINAK 15 / 12:00

Jubilatuen eguna

Meza, bazkaria eta omenaldia [Parrokian](#)

EKAINAK 21 / Egun osoan

Arranoaitz eguna

Musika, bakarriketak, haur jolasak, taberna zerbitzua... [Arranoaitz](#)

ERAKUSKETAK

EKAINAK 16-19 / 17:00-19:00

Eskulanen erakusketa

Pake Lekuko eskulan ikastaroetako lanak ikusgai [Pake Lekuko tabernan](#)



'Eutsi Ramon!'

KALE-ANTZERKIA EKAINAK 20, PARROKIAKO ATARIAN, 17:00

Korpus jaien egitarauaren baitan, Trapu Zaharrak taldearen 'Eutsi Ramon!' kale antzerkia ikusteko aukera egongo da, ekainaren 20an, Parrokiako plaza aldeko atariko plazatxoan (17:00). Bunkerrak egiten dituen enpresa batek lehiaketa bat antolatu du bere produktu berria sustatzeko. Ramon Uriarte lehiakideak hainbat proba gainditu beharko ditu saria lortzeko, eta publikoa apustuan arituko da.



Aiama Quartet jazz laukotea

KONTZERTUA UZTAILAK 2, ASTEAZKENA LAZARRAGA LORATEGIAN, 19:00

Udal Kultura sailak antolatzen duen 'Kalean' egitarauaren baitan, Aiama Quartet taldearen kontzertuaz gozatzeko aukera izango dugu uztailaren 2an. Amaia Izarzugaza bermeotar pianujole, konposatzaile eta abeslariak sortutako laukote honek jazz musika uztartzen du Kubako bolero eta jazz estandarrekin konbinatuz.

HITZALDIAK

EKAINAK 10 / 18:30

Pake Lekuko 'maitasun istorioa' interneten [Pake Lekun](#)

MUSIKA

EKAINAK 7 / 18:15

Oñati eta Ciudad de Caspe abesbatzak

Oñati eta Caspeko abesbatzen arteko elkartrukeko kontzertua. [Agustinoetan](#)

EKAINAK 8 / 13:00

Musika Bandaren kontzertua

Pop-rock doinu ezagunak denboraldiko azken kontzertuan. [Zubikoa pilotalekuan](#)

EKAINAK 8 / 19:00

Ganbara Kantu Eskola kantari

Ganbara Faktoriako harrobiko taldeen kontzertua. [Santa Ana](#)

EKAINAK 14 / 21:00

Fan Hemendik eguneko kontzertuak

Txit Karramarro, Rodeo, Zopilotes Txirriaos-en bertsioak, DJ Sarri eta DJ Biki Bikiak. [Irunberri plaza](#)

EKAINAK 20 / 20:00

Ruper Ordorika

'Bakarka-Bi' diskoko kantak abestuko ditu oñatiarrak, gitarra lagun. [Santa Ana](#)

EKAINAK 27 / 22:00

Ganbara Abesbatza 'Bizitzaren katedrala'

'Udako Gauak' kontzertu berezia. [Arrikruzeko koba.](#)

TAILERRAK

EKAINAK 7 / 11:00-14:00

Astrologiako ikastaroa, lau elementutan oinarrituta

Astrogenealogian eta Gestalt terapian aditua den Maria Arima astrologoak gidatuta, Eltzian (Artez Hezten aretoan). Erreserbatu plaza: 628 212 839. Saioaren amaieran gutun astral individualizatuaren irakurketa txiki bat egingo da.

TOPAKETA

EKAINAK 11 / 18:00-20:00

Emakumion Etxia Eraikitzen

Ikasturtean zehar landutakoa ospatzeko topaketa. [Irunberri plaza](#)

OLARAKO JAIXAK

EKAINAK 6

19:00 Erraldoi eta txorimaloak; 19:30 Euskal hanburgesak; 21 Kontzertuak (*Garratz, Larru Beltzak, Radiocrimen* eta *Kaos Urbano*).

EKAINAK 7

10:30 Haur jolasak eta photocall-a txorimaloekin; 11:30 Lizargarate Trikiti elkartearen kontzertua eta kalejira; 12:00 Haurren mendi bizikleta irteera; 14:30 Auzo bazkaria eta bingoa; 18:00 Trikitilari, erraldoi eta txorimaloak; 18:30 Taloak eta erromeria (*Laket*); 22:00 Kontzertua (*Buen Castigo*, Fito&Fitipaldis-en tributoa). Ondoren, *DJ Oztopo, Nagusi & Kalamar*.

EKAINAK 8

10:30 Haur eta helduentzako tailerrak natur eskolan; 11:00 Auzoko hildakoen aldeko meza; 12:30 Euskal parrillada; 13:00 Herri kirolen erakustaldia; 16:30 MUS txapelketa; 17:00 Oñatz dantza taldearen erakustaldia; 18:30 *lago* magoa; 19:30 Bertso jaialdia (Urko Arregi, Urko Egaña, Aitor Tatieggi eta Gontzal Belategi).

ARAOZKO JAIXAK

EKAINAK 14

14:30 Auzo bazkaria, musikarekin; 17:00 Umeen jolasak eta txokolatea; 18:00 Bola-jokoa; 20:30 Pintxo poteoa; 22:00 Kontzertua (Javi Sound).

EKAINAK 15

11:30 Meza; 12:00 Otamena; 12:30 Haurren pelota partiduak eta 'Barru' herrikoia. Ondoren musikariak.

KORPUS JAIXAK

EKAINAK 20

09:00 Korpus dantzak ikastetxeetan eta herriko auzoetan. 17:00 'Eutsi Ramon!' kale antzerkia, parrokiako atarian; 20:00 Ruper Ordorikaren kontzertua Santa Ana antzokian (10€).

EKAINAK 21

09:00 Korpus dantzak herriko plazan. Ondoren, herriko kaleetan ibiliko dira; 18:00 Txorimalo eta erraldoiak;

EKAINAK 22

09:00 Txistularien goiz-eresia; 10:00 Musika bandaren goiz-eresia; 11:00 Meza nagusia parrokiaren eta, ondoren, prozesioa. Amaieren, musika bandaren kontzertua parrokiako atarian; 18:15 Korpus dantzen egitarau osoa Foruen plazan; 19:00 Dantzaldia, musika bandarekin, parrokiako atarian.

ZINEA



Zine-kluba: Osteguna (19:30)

Nagusiak: Ostirala (22:00), larunbata (19:30 / 22:00) eta Igandea (19:30)

Gazteboak: Larunbata eta Igandea (17:00)

Ikuslearen eguna: Astelehena (19:30)

Ekainak 6 - 9

ZINE KLUBA:

-

NAGUSIAK:

UNA QUINTA
PORTUGUESA

GAZTETXOAK:

-



Ekainak 13 - 16

ZINE KLUBA:

-

NAGUSIAK:

CUATRO PAREDES

GAZTETXOAK:

-



Ekainak 20 - 23

ZINE KLUBA:

-

NAGUSIAK:

ÉRASE UNA VEZ
MI MADRE

GAZTETXOAK:

-



Ekainak 27 - 30

ZINE KLUBA:

-

NAGUSIAK:

BALTIMORE

Benetako
gertakarietan
oinarrituta

GAZTETXOAK:

-



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 / ☎ 943 78 21 16

Ekainak 4, 5, 13, 14, 15, 23 eta 24.
Uztailak 2 eta 3.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 / ☎ 943 78 01 22

Ekainak 6, 7, 8, 16, 17, 25 eta 26.
Uztailak 4, 5 eta 6.

GARATE

Kale Barria 42 / ☎ 943 78 05 58

Ekainak 1, 9, 10, 18, 19, 27, 28 eta 29.
Uztailak 7 eta 8.

ULDAIN

Kale Barria 6 / ☎ 943 78 11 28

Ekainak 2, 3, 11, 12, 20, 21, 22 eta 30.
Uztailak 1, 9 eta 10.

ODOL ATERALDIA

EKAINAK 13 / 16:30-20:30

MU-ko Enpresagintza fakultatean. Aurrez, <https://gotatanta.eus> atarian har daiteke odola emateko txanda. Bestela, egunean bertan **943007884** zenbakira deituta.

MERKATU TXIKIA

SITSA OPARI Ardi sitsa doan eskaintzan da Gomiztegi baserrian. Norberak joan behar du jasotzera 688 689 725.

GARAJE PLAZA salgai Kalegoienako lurrazpiko aparkalekuan: 670 654 359.

BASERRIA erosi edo alokatu nahiko nuke: 620 710 109.

GARAJE ITXIA alokairuan ematen da Arantzazuko Ama kalean: 630 152 329.

DUPLEXA SALGAI Oñatiko erdigunean dagoen duplex etxebizitza handi bat saltzen da. Garajea aukeran: 660 156 664.

GARAJEA erosi edo alokatu nahi dut Errekalde edo Moiu kale inguruetan: 660 758 004.

MERKATU TXIKIA

ataleko iragarkiak dohainik dira.
kontzejupetik@onati.eus
943 78 20 72



Naturatik datorren berrikuntza.